ITXARO BORDA

Basilika

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984ko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

-I-

Jon Kapagorri Euskal Herriko hirugarren zirkonzkripzioko diputadu berri hautatu zuten, euskaldunek. Ibarnegaraiez geroztik, beti, alderdi bereko legebiltzarkideak Pariseko parlamentura igorriak izan ziren. Erran nahi baita «xuriak». Ordea, eskuak ez zituzten berdin xuri. Azken diputaduak, adibidez, telefonoak ezartzeaz edo errepideak berregiteaz aparte ez zuen on handirik egin herrialdea sendatzeko. Arrotz obserbatzaileek zioten euskaldunek beren iduriko diputaduak hautatzen zituztela: euskaldunak, kirixtinoak, eskuindarrak. Orain arte... diogu gaur goitik ez dela batere manera berean itzulikatuko hauen errota.

Zeren Jon Kapagorri, izenak erakusten digun bezala, «gorri» erre haietarik zen. Bere aitatxiren anaia Londresko lehen internazionalaren partaide amorratuenetarik bat zen. Osaba Patxi, zenbait urtez Mozkun egona zen, hango etxeak eraikitzeko talde batean hargin. Eta haren bidez, beste nehork ez zuen horrelakorik bizi izan Eus-

kal Herrian, ezagutu zuen Igor Xenderovski Ukrania-tik etorria gure herri maitagarrira, aste luze batzuen iragaitera. Igor Xenderovskiren pentsamendu politikoak biziki hunki zuen Jon gaztearen buru-muina: sozialismoa, komunismoa, Karl Marxen ideiak... denak irentsi zituen hiru egun barne. Baina, geroztik jakin dugunez, Igor Xenderovski famatu hori, denbora batez Kroutcheven Laneko ministro gelditu ondoan, Brejnevek Siberiako gulagetara bidali zuen, dudanik gabe han ikas zezan lanaren egiazko balioa. Ez gaitezen trufa, trufa merkeegi delakoan.

Igor Xenderovskik komendatu zion Jon Kapagorri mutiko lerdenari, Frantziako Alderdi Komunistan parte har zezan, karta batekin. Segidan obeditu zuen, eta Georges Marchaisen kide beroenetan kondatu abal zuen bere burua. Oso pozik zegoen Colonel Fabien delakoaren karrikan. Halatan aurtengo diputadu hanteskundeetan alderdiak diputadugaitzat izendatu zuen, Pyeénées Atlantiques departamenduko hirugarren zirkonskripzioan...

Baina, herri ttikietan egiten zituen bilkuretan ez zituen bere komunist ideiak zabaltzen, askoz

zuhurrago zen, bere programa Itosperenaren gainean kalkaturik: telefonoak, bideak, soldadogai erreformatze edo Mont-de-Marsanera igortze, eskola libroak defendatze, terrorismoaren aurkajokatze etab. Gainera, etxean gurasoekin ikasi euskaraz arras xarmanki ari zen, eta mitin politikoaren ondotik, pilotan, herrietan aurkitzen zituen pilotan atrebituekin. Jon Kapagorriren kanpaina festa bat izan zen. Egia. Itospek ez zuen horrelakorik, oizu!

Joko politiko horretan «hordago» botaturik mahainera, herriak igande eguzkitsu batez «kanta!» ihardetsi zion, eta %68 botzekin lehen turnadan berean Itospe garaitu zuen. Astelehenean, telegrama bat bidali zion Igor Xenderovskiri Siberiara *avec accusé de reception.* Herri guzietan txanpaina botilak ireki zituzten, plazetan hegoaldetik ekar arazi trikitilariekin fandango bikainak dantzatzen zituztela. Festak zarraikan...

Aspaldi bazuen (mende bat hurren) Euskal Herriak ez zuela ezkerreko diputadu «gorri»rik Parisera igorri. Arrotz begiraleak oro harrituak gelditu ziren: Frantzian diputadu gehienak eskuinekoak zimen, extremaeskuinekoak ez bazitez-

keen. Horrek erakustera ematen zuen, euskaldunen bozkatzeko maneretan ez zela madarikaziorik, ez zirela herritarrak eskuin aldera bozkatzera destinatuak, elizak eta lekuko notableek sinets arazi nahi luketen bezala.

Jon Kapagorri, diputadu berri eta ezkerreko. Hala zen, oraindik hala da. Ardura, ahapez, emana zuen, belarri batekin aditzen zutenei, hitzemana baino askoz gehiago eginen zuela bere herriarendako. Zeren, herria, gure herria keinka txarrean zegoela ohartua bait zen (ez zen naski politiko izate beharrik horretaz konturatzeko): langabezia, euskara menperatua, lurra debalde atzerriko jaunskilei saldua, laborarien ezin bizia etab. Zerbait obratu behar zen eta laster. Ez zuten euskaldunek planeta honetako azken indioak bezala desagertu gogo. Alde guzietatik arrazoin zuten... horregatik Jon Kapagorri hautatu zuten, gazte, lerden, zintzo.

Parisen zelarik Bourbon palazioan, Barneko ministroak manatu zion bere eginbide bakarra zela terrorismoaren harraren kontra borroka-

tzea, nahi bazituen beste ekintzetarako kredituak erdietsi. Bazen bai, prolema bat, baina hemengo terrorismoa ez zen Parisen erraten zuten delako gangrena. Umilagoa zen, iparralde honetako ezin bizian oinarritua. Ez zukeen inolako gisetan frantses estadoaren batasuna mehatxatzen. Jon Kapagorri ez zen polizia gizon bat, eta ministroek dirua ez bazioten eman nahi, berak eta bera hautatu zuten jendeekin bildurik herriari doazkion neurriak hartuko zituen...

Soluzioak aztertu zituen. Zentral nuklear bat egin Bankan? Ez, lau mila lanpostu sortuagatik inguruko biztanleentzat lanjerosoegi zen... Petrolioa lurrean bilatu, Amikuze alde horretan ba omen bait dago Laquetik datorren filon bat; baina han eme baztertu zuen. ikerketak karioegi zinelakoan eta petrolioa balitz, jende artean ekonomiko desberdintasun larriak ager zitezkeelakoz. Ez zuen batere desiratzen Edwing bat edo Carrington bat bere bozkatzaileetan... Pentsatu zuen Japoniako moto fabrika bati hona etortzea galdegitea. Ordea, bazekien japoniarren lan metodoen berri. Beraz utz! Lan bost egunez arizan

zen herriaren geroari amesten. Soluzioak oro onak zitezkeen, baina...

Bere aitamen etxera joan zen Jon Kapagorri. Berritan finitua zuten villan afaldu zuten hiruek. Eskaratzean, hemeretzigarren mendeko muble baten gainean, plastikozko gauza bati so egon zen. Han zen, umez betetzeko plastikozko Ama Birjina bat, dena xuri eta urdin, irri leunezko emaztea, Ama Birjina... Jon Kapagorriren ama, arras fededuna zen: urtero Lurdara joaten zen Baionako Apezkikuak kudeatu euskaldunen beilara. Han herri guzietako fededunak aurkitzen ziren: Senperekoak, Hazparnekoak, Itsasukoak, Luhusokoak, Oragarrekoak (ez azkenak ritualetan!), Buztintzekoak, Bankakoak, Maulekoak, Santagrazikoak eta Salgizekoak... Hots, Euskal Herria.

Ideia. Ideia handia, ospetsua, ohoragarria. Ideia geniala. Euskal Hernian Lurdes bat moldatzea, Ama Birjina batekin, Soubirousa batekin, eta Basilika baten inguruan eraiki komertzioekin. Ideia ezin sinetsia. Berari gertatzen zitzaion lehen mirakulu kosmikoa, edo komikoa behintzat... Basilika: mila metro gomako urrezko do-

rrearekin, gotiko estiloan, Pariseko katedrala baino ederrago, Lurdeseko Chantilly meta ahantz araziko zuen basilika.

Ideia horren alde onak eta alde txarrak miatu zituen. Hondarrean ez ziren alde onak baizik gelditzen. Ez dakit zenbat lanpostu kreatuko zituen obra hori bururaino eramateko. Lehenik beharko zen Soubirous bat atzeman, bigarrenik *commission de controle des miracles* bat, hirugarrenik norbaitek Ama Birjina berezi baten itxura marrazkitu beharko zuen, gero basilikaren altxatzeko harginak, maixturuak, zurginak, zizelkariak, tindalariak, artesanak bildu beharko ziren, eta azkenean tenploko komertzanteak. Komertzanteek bazuten jadanik aski esperientzia, ari bait ziren udaro turistei euskaldunez bestitu panpinen eta xahako hutsen saltzen.

Gau guzian, ohean, bakarrik, itzuli-mitzulika arizan zen. Eta bai, hau dena egiztatzea ahalezkoa zen. Baina konplizeak, segurrak, xerkatu behar zituen. Irulegin neska bat ezagutzen zuen, Elorri izenekoa, hamabi urte zeuzkana. Bi biak ibiliak ziren eskuz esku, nehork ikusi gabe, Iratiko sasietan amets zoro egiten. Bai Elorri izanen

zen; berdin ados ez bazen hilabetero zerbait pagatuko zion Soubirous berria josta sari... Bestalde, bazuen bere lagunetan apez bat gaztea eta berezia: Kepa Oihenarte. Uztaritzeko seminario ttikian egonak zinen elkarrekin eskoletan. Kepa mutiko fidagarria zen. Bi hauekin hasiko zen beraz...

Bihanamonean, Irulegira joan zen beribilez. Elorri han zegoen plaza erdian, boketa latsen. Zeren Elorriren familia hain zen pobrea non ez bait zuten dirurik asko, garbitzeko makina baten erosteko. Elorri alaba bakarra zen, eta etxeko oihal-puska guziak pasatu behar zituen, kasik egunero. Istorio patetikoa: negarra bazerion begitartera, bere pobrezia manera horretan erakustearekin. Telefonorik ere ez zeukaten. Eta Elorrik diputatu berria ikusi zuenean irri goxo bat egin zuen. Honek telefonoa eta elektrizitatea ekarriko dizkigu pentsatuz. Ordea Jon Kapagorrik zerbait gehiago sartuko zuen Elorri zoritxartsuaren bizitzan: ametsa eta erokeria... Ez da gaizki.

–Epa, Elorri, zato...

–Agur Jon, nola zara, diputadu izanagatik nitaz oroitzen, ala samurtasun bila zabiltza?

–Ba, biak. Hurbil zaitez!

Ostatu batean kokatu ziren, bi pelfort manatzen zituztela tabernaniari. Solasean hasi ondoan, Jon segidan gaiaren bihotzera joan zen.

–Elorri, nere proiektu batetan kolaboratu nahi bazenu arras kontent ninteke. Horra: Euskal Herria desenklabatzeko ideia handi bat badut, baina zu gabe ez dezaket deusik egin. Hona: behar duzu Bernadette Soubirosek bezala Ama Birjina ikusi, eta ikuste horren lekuko izan munduaren aintzinean.

–Ba, osoki ados ninteke, ordea nihaurek ez dakit zer den Ama Birjina delako hori. Ez naiz usu ibiltzen mezan gero, bueno katiximan ikasiekin zerbait egin dezaket zure laguntzeko.

Irriz karkazailka hasi ziren biak. Ez zekiten irri honi Euskal Herri osoari emanen zutela, zenbait urte berantago. Jon Kapagorrik hitzeman zion xuriketen garbitzeko makina bat eskainiko ziola, bere urtebetetzeko, eta etxean ere telefonoa instalatuko ziotela.

–Horrela Ama Birjina famatu hura ikusiko dudan aldi oroz deitzen ahalko zaitut Jon, ene maitetxu! Gero elkarrekin ezkonduko gara, berdin!

–Gaixoa, ez da posible izanen; ni bezalako gizon bekatorosoak ez du zeruak eta graziek hunki saindu bat esposatzen ahalko.

Irriak negar bihurtu ziren. Elorrik ez zuen komentuan sartu nahi. Komentuan ez. Jonek proposatu zion serora ordre berri bat kreatuko zuela, bere maitearentzat, eta halatan beren bideak segi zitzaketela.

Elorriri azken musu laikoa emanik, Jon Kapagorri Euskal herriko diputadu berria, joan zen Ezterenzubira Kepa Oihenarteren bisitatzera. Kepa Ezterenzubiko elizaren kalastrapuan zegoen, «marixuana» erretzen, bi hankak izarrei ofreitunik. Bo, ez da hori hain harrigarri: oraingo apezak askatuak dira, eta nolaz gose grebalariak sostengatzen dituzten, normal da euskaldun arrunten pipa berdinak erre ditzaten.

Jon eta Kepa ados jarri ziren. Kepak ez zuen Jonen ideiari oztoporik ezarri. «Bai nahi dukana eginen diat, aski daukak diretibak ematea; mana

nazak, Jainkoak bakarretan manatzen nauen bezala. Han ez badut biziki obeditzen, hire gizona nauk. Ongi duk, benaz erran bezala...» Bai, Kepa presatua zen, herriko festak antolatzen zituen erakundeak bilkura inportante bat bazuelakoan, zortzietan... Baiki. Jon urrundu zen. Haize hegoan.

Aferak orain artino ongi zihoan. Ez zukeen Jon Kapagorrik horrenbesterik espero. Oroitu zen, Kepa Oihenarte apez marjinala agertuagatik arras ontsa ikusia zela, Baionako apezpikutegian, eta bere denboretan Erroman teologia ikasle egon zela. Bere ideia egiaztatzeko sistema hierarkiko hori erabiliko zuen. Eguna zaila izan zen. Jon Kapagorri, Euskal Herriko diputadu berri, nekatua oheratu zen, bere herriarentzat zerbait obratzea ahalezkoa baino gehiago zela pentsatuz.

-II-

«Ixtante berriak “Gure Irratia”n. Egungo gertakari nagusiena dugu, Irulegiko eskualde horretan Elorri izeneko neska gazte batek, goiz honetan, ardiak larrera ematetik etxerakoan, Ama Birjinaren agerpena ikusi duela. Segidan, Irulegiko «Herri Irratia»ko lankide batek xehetasunak igorriko dizkigu telefonoz...» Berria, bai, ke zikin bat bezala hedatu zen Euskal herran. Jadanik entzuleek irratira deitzen zuten.

Ordu hartan, Lucien Etxezaharreta mintzo zen «Gure Irratia»n. Harritua zegoen, ez bait ginen apirilaren lehenean. Behar bada zerbait egia bazen berri ezin sinetsi horretan. «Hemen dugu zuzenki, Argitxu, Irulegitik noski; zuri beraz Argitxu» erran zuen Luzienek bihotza punpeka ari zitzaiola. Delako neska solasean hasi zen:

«Goiz honetan gentakari bat Irulegiko eskualdean. Elorri Bazterrek ardiak ematetik etxerakoan, hiruetan, hiru lekuetan, Ama Birjinaren agerpena ikusi duela. Eta madona honi eleka ari zitzaion omen, berak ulertzen ez zuen hizkuntza

batetan. Etxe atarian gaixo hamalau urte atzo kunplituko neskatxa hau trenpuxartu da. Aitamek Donibaneko medikuari laster jitea erran diote, ez bait zekiten neska azkar horrek zer eritasun zuen... Medikua etorri zen, eta iratzar arazteko pikura bat eman zion, Elorri desesperatuari. Arras pena handiak zituen mintzatzeko “mama birjina! mama birjina! ikusi! nik! dut! nik!”. Eta horrela jakin zen gaizkitze horren arrazoia zerutiar andere ospetsu hura minutu laburrez mirestea zela... Gehiagokorik ez dugu. Zuri Luzien...» Argitxuk telefonoa pausatu zuen. Luzienek komentario luze bat egin zuen, eta beste berrietara pasatu zen... Hitzeman zuen, entzulegoari, berak inkesta bat hasiko zuela Irulegiko kasu bitxi horretaz.

Anartean, Jon Kapagorrik Donibane Garaziko bere mediku lagunetarik bat ezarri zuen jokoan. Han zen Iñaki Karrakoil. Medikuntzarako istudio aberatsak Bordeleko unibertsitatean hasi eta bukatu zituen; mutiko ederra zen, alaia, eta medikal manera berrien zale: landare, edari trastu, pereka sakon, etab. Mediku egokia zen, abian onartu zuen diputatuaren ideia. Zin zegion osoki

parte hartuko zuela afera horretan. Ez ahantz Iñaki Karrakoil izen hori...

Elorri ixila zen. Bi egunen buruan baizik ez zen irratiei mintzatu, bere historia arras xeheki kondatuz. Hitzak hautatzen zituen. Egia erran, Jon Kapagorrik erakutsi zion nola agertu behar zuen. Eta Lurdeko Ama Birjinaren argazki batekin esplikatu zion zein maneratan deskribituko zuen andere hori. Elorrik hatzez hatz segitzen zituen Jonen manamenduak.

Luzien Etxezaharreta etorri zen bere auto orlegi zahar makatuaz. Usaian bezala, lepo inguruan, oihal lodi beltza zakarren, eta inpermeable ximurtua. Horrela jantzirik, gizon publiko horrek, telebistako Colombo famatua iduri zuen. Gainera inkestak egiten ari zen aspalditik: duela zenbait urte GAL oroitzapen txarreko talde terroristak errefuxiaturen bat hiltzen edo bonbaz zauritzen zuelarik, beti lehenetarik zen ekintza ustelaren tokian bere mikroa eskuan, lekukoen inpresioak biltzeko... GAL hori frantses eskuinari josia zen, eta horko hiltzaileak espainol gobernuak pagatzen eta manatzen zituen. Geroztik, Dukosk kontseilu orokorreko buruzagia eskandalaz itorik

joatera bortxatua izan zen... Hemengoek, bakea eta bi sos pentsatu zuten, irri handi bat eginez. Beraz Luzien etorri zen Irulegira...

Elorrik oihukatua zuen entzun nahi zutenei «Gure Irratia»rekin bakarrik mintzatuko zela. Hitza hitz, beste garaietan ez bezala. Luzien pozik zegoen, eskupe bat zeukalakoan. Bere tresneria Elorri Bazterreren etxeko sukaldean zabaldu zuen, eta neskaren amak kafea eskaini zion. Luzienek ez zuen sekula biziko gozotasunei ezetz erraten. Bi ordu berantago lanean hasi ziren (hona, irratiko artxiboetan gorde elkarrizketaren zati batzu).

–Presentatzen ahal diguzu zure burua?

–Bai aise da. Elorri deitzen naiz, eta hamalau urte ditut. Izpurako klinikan sortua naiz. Irulegin bizi naiz nire aitamekin.

–Benaz neska trankila zara?

–Baiki. Ez naiz gehiago eskolan ibiltzen. Hartze txarra nuela zioten errintek, eta uztea hobe nuela. Nik haiek errana egin, ez nuen batere gusturik horretarako.

–Ardiekin nahiago menturaz?

–Bai, ardiak mendian zaintzea biziki gustatzen zait, joare pizuen soinua, marroen barrabilzakilen balantza hurria, txoriak haritzetan kantuz, eta mutil-nesken arteko samurtasunak sasipeetan. Neska xinplea naiz.

–Ba ikusten dut, baina katiximan ibili zinen?

–Segurki, gaztetandik otoitzak ikasi nituen, nor zen Jainkoa, bere seme Jesus ezagutu nuen, Izpiritu Sandua ere. Geroztik goiz guziez, ardiak deitzi eta, abere horiek larrera eman baino lehen, itzuli bat egiten dut zerukoa otoizteko, herriko eliza maitagarrira.

–Norbaiti agertzekotan, zuri agertzea ongi egin du delako Ama Birjinak?

–Zer erran nahi duzu? Birjina naizela? Zeruko bideak ezin zilatuzkoak baldin badira gizonentzat, nire barnekoak errexak dira aurkitzeko, aspalditik irekiak baitaude...

–Umore ona ere baduzu, ez zara beraz neska trixtea? Behar bada Ama Birjinak bere gisan irri egitea maite du?

–Ez dakit. Berdin bai. Duela hiru egun agertu zait, euskaraz mintzo oroitzen naizenaren aranera.

–Nolakoa zen?

–Emazte ederra, rnodako aldizkarietan eta jantzi-katalogoetan ikusten diren haiek iduri. Eguzkiak, edo ultrabioletek, beltzatua. Arropa xuri bat bazuen, buruko berde bat eta eskularru gorriak. Bere gonak, bular oparoak ikustera uzten zituen. Ez dakit zergatik ni bezalako neska enul bati agertu den, gizonezko batekin arrakasta gehiago ukanen bait zuen. Segur, zeren Marilyn baino ederragoa bait zen. Eta ze zango sagar finak...

–Erakutsi dizkizu?

–Ez, larre ondoko ibaian sartu delarik, bere arropa xuria altxatu du, eta orduan begixtatu dizkiot.

–Ama Birjina sexy bat beraz?

–Zer erran nahi du sexy hitz horrek, katiximan serorek ez dute hitz hori esplikatu...

–Segi dezagun bada. Eta zein ziren Birjina horren solasak?

–Lehenik, belaunikatzea galdegin dit. Obeditu dut. Inkase zer gerta ere, gero lurra esku ahurrean har arazi dit, eta jan arazi. Egin dut dena.

Etxerata gotigin beharrean aurkitu naiz, eta kareriatua.

–Zer erran dizu?

–Nintzen lekuan basilika bat eraiki behar zela, Euskal Herriko jendeak hemen behar zuela bildu zerua otoizteko, eta Baigorri aldeko lur gorriari sendatzeko ahala ematen ziola. Uste dut emazte hori obeditu behar dugula.

–Herriko apezarekin mintzatu zara?

–Ba etxera jin delarik, erran dit ospital psikiatriko batean kartzelatzea merezi nuela. Zer dira etxe horiek?

–Eri etxe berezi batzu...

–Apez horrek ez du konprenitzen, nihaur ez naizela ez aski zoroa, ez eta aski abila horrelako gauzen asmatzeko. Ikusi dudana egia da.

–Ba nik segurrik ez dut dudatzen. Milesker Elorri, eta Ama Birjinak erran dizu noiz agertuko zaizun berriro?

–Heldu den asteartean.

Luzienek mikroa etsi zuen. Harritua baino harrituago gelditu zen solas ero horiek entzutean. Ez zekien konplote batean parte hartzen zuela memento berean. Euskaldun fededun guziek be-

zala funtsean. Beste kafe bat edan zuen, eta patxaran baso ttiki bat bi hurrupetan hustu. Bere arnesak bildurik Milafrankara joan zen, arratseko zazpietako berri sailean elkarrizketa hori irratian pasatzeko.

Delako astearte goizean, jende pila bat etorri zen Irulegira, Elorrik aipatu lekura. Elorri ixilik otoitzean zegoen. Egia segidan aitortzeko, derragun usaian elizetan ahozkatzen diren otoiz luze horietarik bat ez zezakeela buruan buru errepika, libururik gabe. Alegia ari zen beraz... Jendea, hura, zintzoki ari zen zeruari deika, Kipres Arbelori predikari zuela. Elorrik irri egiteko gutizia zeukan, jendeari so zegion aldi oroz. Horregatik kaskoa apalik zatxikan. Eta marmar, eta blabla, amen...

Frantses eta Euskal Telebistako lankideak hor ziren, kamera video pizuak sorbaldetan estekaturik. Maite Barnetxek talde guziak kudeatzen zituen. Hau zitekeen euskaraz zekien bakarra.

Elorrik pentsatu zuen, azkenean haiduru egote komedia honek aski iraun zuela. Besoa al-

txatu zuen «Hara, Ama Birjina!» oihukatuz. Begiak zeruko puntu bati itzuli ziren; miresgarri, populuaren batasuna. Elorri Ama Birjinarekin eleka ari zen. Baina ikusleek ez zuten deusik sumatzen. Bazirudien hutsarekin ari zela solasean, ordea jendeek sinesten zuten, telebistakoek filmatzen zarraikiten... Bat batean ekintza bitxi baten lekuko gertatu ziren guziak: Elorri belaunikatua zen, eta lurrera plegatu zen eskuekin lurra irauliz. Esku ahurrak lur mokorrez bete zituen eta ahora hurbildu. Zerbait orden ukan balu bezala, gogo txarrez lurra jaten hasi zen. Goitigin nahi zuen. Behatz batean zizare gorri lodi bat gelditu zitzaion. Ama Birjinari «hau ere irentsi behar dut» eskatu zion desgustatuuik. Dudarik gabe, zerutiar andere ospetsuak, baietz erantzun zion. Eta zizarea jan zuen espagettiak bailitzen. Elorri gaizkitu zen. Jendeak pentsatu zuen emozioa handiegi zuela, ezin jasanezko zorion batek trenputxarrean jartzen zuela...

Iñaki Karrakoil etorri zen lasterka. Inguruko apezak ere, haien buru, Kipres Arbelhori edo Arbelori. Medikuak jendeak bazter arazi zituen, Elorri bere etxera lehen bait lehen eramateko.

Bestela berantegi agertzen ahal zen. Zizare bat, hogeitamar zentimetro luzekoa, irentsi ondoan zer edo zer gerta zitekeen. Bazterrera joan ziren, Elorri eta Iñaki... Jendea negarrez «hau da eguna jaunarena...» deiadarka kantuz ari zen. Taldearen indarra! Baina Elorrik zizarea irentsi. Zizare on, zizare on: mirakulua, diputatuaren eta bere konplizeen ideiak bururatzeko manera hoberena...

Etxeko sukaldean, tela ziratuz estali mahainaren inguruan, Jon Kapagorri jarririk zegoen, baso baten aurrean ametsetan. Elorri eri zen. Iñakik bere besoetan ekartzen zuen, eta mahain gainean utzi zuen gorputz meharra. Ama kexatu zen: «Ama Birjina deabru horrek nire alaba bakarra hilen dit! Komedia hau luzea da. Luzeegi... asea naiz!». Jonek Elorriren ama lasaitu zuen: «Ez inketa, Iñakik badaki nola sendatzen diren horrelako gaixotasunak...». Amak segidan: «Ez didazue esperantzatan ezarri bederen. Zuen batengatik haurdun gertatzen baldin bada, beharko duzue zuen erresponsabilitatea hartu...». Iñakik ez zelako horrelakorik ihardetsi zion, baizik eta Ama Birjinak manaturik, neska horren baitan

noraino konfiantza ukan zezakeen probatzeko, zizare lodi gorri eta gurintsu bat irents arazi ziola. Hitz horiek entzutean zorigaitzezko ama, trenputxartu zen.

Ongi ziren bai, Jon eta Iñaki: orain bi gorputz bazituzten bizitzara ekar arazteko. Iñaki Karrakoilek bere larruzko boltsatik bi pikura bikain atera zituen, eta bien ur berezien osotasuna, bi emazteen azpi pottoloetan azken zirritaraino hustu. Elorri eta bere ama, ipurdia erdi agerian egon ziren bizpahiru orduz, iratzartu arte hain zuzen. Begiak ireki zituztenean, jadanik, gaua zen Irulegiko herrian. Zuri zuriak ziren bi emazteak!

«Beha zer ekarri dizuedan zuen kolaborazione sari: xuriketak egiteko eletrikazko maxina bat. Berria da, atzo erosia dut, zuendako. Espres! Agian gustatuko zaizue, eta behar den bezala baliatuko ere» zioen Jonek. Elorrik delako zizarea diseitua zukeen, irri bero batekin diputatuari hurbildu bait zitzaion. «Ez duta ene lana ontsa egin?». Denak zoriontsu ziren, baiezka... Beste zizare bat jan behar baldin bazuen, inkasean, amak diputatuari eskatu zion bere alaba-

ren kuraie saritzat. etxean telefono eletronikoa ezar ziezaion. Baietz, bai, baietz, zuk desir dituzun guziak, aski duzu galdetzea, nori, bueno nihauri, ni naizelako nire buruaren jabe bakarra, etab. Hauek ziren familia horretako sukaldean entzun zitezkeen ele erdi-zoriontsuak. Elorri, ama, Iñaki eta Jon Kapagorri...

-III-

Baionako apezpikutegian, hego haize hats batek, elizaren buruzagiak arras zorotzen zituen. Alde batetik, arrazoiaren izenean, Irulegiko gertakaria ez zuten sinetsi nahi, eta bestetik afera on bat bezala senditzen zuten gauza euskaldun deabru hauek berriz fededuntzeko sakonki. Afera on bat... Ixtorio hori egiazkoa izan zedin zeruko Jaunari otoitz kartsuak egiten zituzten, Lapurdiko hiri nagusiko katedralean. Katedrala, hainbestetan baliatu zuten euskaldunek, ez Jainkoa otoizteko, baizik eta gose-greba luzeen bidez erdal gobernuari beren eskakizunak entzun arazteko: errefuxiatuentzat, ikastolentzat. Nehork ez ditu ahantzi, ez ahantziko ere...

«La Croix» astekari nazionalean berria irakurri zuenean, apezpikua kexatu zen. Zioen, manera horretan elizak ez zuela deusik kontrolatzen, eta elizaren helburua zela gisa horretako asuntoetaz arduratzea. Segituko zuen minutu erdian hartu erabakiak, garrantzi asko ukanen zuen Jon Kapagorri diputatuaren xedeen urrunago erama-

teko. Apezpikuak erran zuen agerpena frogatzeko komisio bat eraiki behar zela lehen bait lehen. Gizon saindu horiek dudan gelditu ziren, ea nor ezarriko zuten komisio horren buru. Bikario generalari, izen bat etorri zitzaion ezpainetara: Kepa Oihenarte, Ezterenzubiko erretore zegoen apez gazte teologoa.

Denak ados jarri ziren bikarioarekin.

Komisione hori, beraz, Baionatik kudeatua izanen zen. Baina Kepa Oihenartek botere guziak eskutan edukiko zituen inkesta serios baten egiteko. Kepari telefonatu zuten abian:

– Alo, hemen apezpikutegia, Kepa?

– Bai, hemen Kepa zuen zerbitzari leial eta fierra. Zer nahi duzue?

– Agerpen komisioaren buruzagitzat hautatu zaitugu, lanean behar duzu hasi, Irulegiko kasuaz egizu inkesta serios bat...

– Baietz, zuen hautuak ohoratzen nau, zeruko Jainkoak ongi akulatu zaituzte. Bihar berean igorriko dizuet nire inkestaren lehen partea...

– Ongi, Zure paperen zai gaude. Jainkoak benedika zaitzala...

– Gisa bera!

Eta apezpikuak brau telefonoa pausatu zuen. Bere eginbidea betea zuela, pentsatu zukeen, oraindik, kontzientzia bakean zeukala. Sekretarioari kafe azkar bat apailatzea eskatu zion, eta honek segidan obeditu. Berrogei urteko emaztea zen Gaxuxa, ezkongabea, eta apezpikutegian sartzeko sekretario bezala behar izan zuen etsamin bat pasatu, bere birjinitatearen frogatzeko. Gaxuxa apezpikuaren lankidea zen orduan, graziek hurbildu gizon jakintsu erdaldun horren predikuak oro euskarara itzultzen zituen. Halatan, herri honetako, ardi errebelatuek uste zuten Baionako apezpikuak euskaraz bazekiela. Baina, ikusten duzuen bezala, engainatzen ziren. Utz dezagun auzia!

Batzuek, kontzientzia bakean, besteek kontzientziarik ez. Mundu hau gaizki moldatua dela aitortuko dugu. Dena den, iragan aldira bihurtuz aditza, Kepa Oihenartek ez zuen denborarik galdu. Joan zen berri on hori Jon Kapagorriri azaltzera. Eta berak asmatu bizpahiru lekuko izendaturik, bere paperak idazki beltzez estali zituen. Gau bakar batean, Irulegiko Agerpenez, ehun eta bost orrialde zikindu zituen. Gainera, Elorrik

egunero ikusten zuen Ama Birjina sexy hura, beti toki berdinean... Jendea, biltzen eta biltzen zen, Irulegiko ostatuak aberasteko moduan zeuden.

Kepak bere lana konplitzen zuen ederki. Apezpikutegia arras pozik zegoen, aldi berean, Jon Kapagorrik opariz gordetzen zuen Elorri neska gaztea: agerpen bakoitzarendako emaitza bat bazuen, edo musika rock entzuteko estereo tresna, edo filmak telebistatik grabatzeko video sistema, edo etxean erabiltzeko mikrokonputer bat, edo Txinatik espreski ekar arazi usain on arraroa, edo ardiak zaintzean belarrietan atxikitzeko walkman delakoa, edo nik dakita zer. Elorrik hogei aldiz begiztatu zuen zeruko Ama Birjina...

Oharpen historiko bat egin dezagun hemen: Lurdeseko Bernadeta Soubiroussen hemezortziko marka ohoragarria, Irulegiko Elorrik bi puntuz errausten zuen, mundial marka berri bat finkatuz. Pentsatzen dugu, guk idazleek, zail izango dela Elorrik baino hobekiago egitea.

Jon Kapagorrik, Donapaleun, mintzaldi bat proposatu zuen herriko telebista-irratien aurrean. Hona zer erran zuen:

«Kaixo lagunak!

»Gure herrian, Irulegin hain xuxen, gertatu da gauza bat ezin sinetsia. Alta, sinetsi behar dugu, Elizak sinesten duelakoan. Ez dut horretan politikarik, nahi nuke Agerpenen lekuan basilika handi bat altxa dezagun guziek batean, eskuzesku, dugun fede suharra gidari. (entzuleen txalo nasaiak)

»Lehenik Elizak zer aterako duen beha egonen gara. Gero denak lanean hasiko gara. Eskuzesku, gure herriaren ohorea goraipatzeko, eta munduak ikas dezan, basilika horren bitartez, nolako graziak hunki duen Irulegiko neska garbi eta pobre bat: Elorri! (jendea txaloka)

»Erran bezala orduan. Ondoko egunetan moldatuko ditugu bilkurak kantonamenduka, bakoitzak zer ekarri beharko duen finkatzeko. Agur, eta milesker denei!».

Horrela bukatu zen Jon Kapagorri diputatuaren hitzaldia. Antiklerikal amorratua zela uste zutenak ere, konbertituak izan ziren hitz sukar-

tsu horien bidez. Elorrik Euskal Herria bere diputatuarekin osoki eta behin betikoz baketzen zuen. Hau ez ote zen mirakulu bat?

Baionako apezpikutegiak zenbait lege-kanoieko dotor igorri zituen Elorriren etxera. Hango sukalde historikoan, beren auzitegia altxatu zuten. Bi egun eta erdi iraun zuen inkisizio moduko solasaldi horrek. Jon Kapagorrik eta Kepa Oihenartek erakutsiekin, Elorrik dotor ospetsu horien aintzinean ez zuen huts bat ere egin. Ikaragarria! Dotoreak Elorri baino lasterrago nekatu ziren, ohartu bait ziren neska hau, bere hamalau urteekin, berak hainbat jakintsua zela. Adibidez, esplikatu zioten, zergatik Jainkoak bere semea gizonen artera igorri eta gero, nehork uste gabean, kendu bere eskuinaldean jainkottipi ezartzeko.

Hona zergatik: Jainkoak duela aspaldi mundua kreatu zuen, gizonak bere idurira eginez, eta emazteak gizonaren haragitik ateratuz. Zeruko izpiritu horrek gizadia ahantzi zuen, eta nahi zuen seme bat arras bitxiki sor araziz, ikusi abere bizangodun horiek zertan ziren. Hogeitamahiru urtez, bere seme pribilejiatuak jasan

behar izan zituen, beste gizasemeen sufrantza berdinak, eta horretan gure Jainko famatuak erabaki zuen bere seme maiteak aski sufritu zuela; orduan bere eskuinaldera jin arazi zuen, hor ere manera bitxi batean. Pentsatzen zukeen Jainko seme batek ez zituela gizonek pairatzen zituzten minak merezi. Elorrik finitu zuen erranez, orain-dik adoratzen dugun Jainkoa aristokrata bat baizik ez zela. Dotoreak konbentzitu zituen. Dudan ziren, duda latzetan...

Gaixo apez eskolatu horiek zioten ez zutela gehiago deusik egiten ahal, eta neska hori Erromara bidali behar zela, hango lege-kanoiko dotoreekin mintzatzeko. Baina nor igorri Elorriren lagun? Ezin bestean Kepa Oihenarteri pentsatu zuten. Bazekiten mutiko honek urte asko iragan zituela, eta hiria ongi ezagutzen zuela. Erromako Kuria ere ontsa ezagutzen zukeen.

Biharamonean berean trena hartu zuten Erromara joateko Kepak eta Elorrik. Ez ditugu ibilaldian gertatuak oro hemen azalduko, luzeegi bait litzateke guretzat, eta nardagarriegi irakurleen-

tzat. Ordea hau ez dugu ixiltzen ahal: Nicera heldu zirelarik, han bi gau zoragarri iragan zituzten gure bi laskarrek. Diruaren eta atsegin errazaren hiri nagusia den horretako Casinoan izan ziren, eta sakelan zituzten berrogeitamar libera xaharrak rouletan jostatu zituzten, 21 zenbakiaren gainean. Suertea beren alde zuten orduzordu, gauak-gauari doblatuz zihoan bere diruketa arina. Azkenean bankoa salta arazi zuten, eta Niceko Casinoak, ordaintzeko dirurik aski ezin edukiz, Elorri eta Keparen eskuetan utzi zituen bere giltzak. Cannesen, Monacon, Genesen, Firenzan, Pisan, Asisin eta Erroman berdin egin zuten ondoko egunetan. Rothchild baino aberatsago zitezkeen Aita Sainduaren aintzinean, agurtzeko, belaunikatu zirelarik...

Aita Saindu polonesa Kepa Oihenarteren babesle zen, gure mutikoak estudio argiak segitzen zituenean. Berehala zuti arazi zuen bere laguna, seme bat bezala konsideratzen zuen Kepa.

– Aiba Kepa, zer moduz? Beti erretzen ote duzu gure zoriona tinkatzen zuen marixuana delakoa?

– Bai denbora dudanean, eta bereziki brebiarioa leitzen dudalarik. Jainkoari hurbiltzen nau. Baina, orain, herrian gertatzen direnekin ez dut astirik bate

– Eta zer gertatzen zaizue bada?

– Ba badakizu, Elorri deitzen den artzaintsa honek Ama Birjina hogei aldiz ikusi du, eta harekin mintzatu da.

– A, uste nuen komunisten indar gaiztoak zuen bakea trabatzen zuela. Ama Birjina hobe da, segurki, sobietar soldadoak baino. Baiki. Ongi, beraz, eta (Elorriri mintzatuz) Ama Birjinak ez dizu deusik erran sobietar madarikatu haien xedeetaz?

– Bai (gezurka ari zen Elorri) erran dit hark denak ikusten zituela zerutik, eta haren usteko, sobietar batasuna errautsaren gainean eraikia zela. Finitzeko erran dit Moskuko boterea laster eroriko zela...

– Eta noren bidez? Amerikanoen bitartez?

– Bai. Erran du Jainkoa guztiz boteretsua zela eta Amerikarrak hurbiletik lagunduko zituela, Moskuren hausten, eta orduan mundu osoa libre izanen zela...

– Gaixo Ama Birjina. Ez nuen pentsatzen hura ere ni bezala antikomunista zenik. Bon, joaten ahal zarete...

– Baina (Kepak moztu zuen Aita Sainduaren hitza) lege-kanoiko dotoreekin mintzatu behar dugu...

– Utzi mutil, utzi. Ez ote naiz, nihaur, dotorerik handiena, aita saindu naizenaz gero???

– Baiki zure Saindutasuna...

– Jainkoak benedika zaitzatela... Errazu Kepa, P2 gelan nirekin dagoen trafikante turko batek marixuana izugarri ona ekarri berri du Istanbuletik. Nahi duzu puska bat, hamar bat kilo?

– Bueno. Zuk eman guzia hartuko dut.

Kepa eta Elorri San Pedro plazatik atera ziren gogoetaz eta marixuanaz kargatuak. Aita Sainduaren bendizionea erdietsi zuten, oraindik Irulegiko Ama

Birjinaren kultoa zilegi zen. Zilegitasun horretaz ongi baliatuko ziren bi biak. Ohar bat: elkarrizketa hau behar da, Aita Sainduaren aldetik, polako mintzaeraz asmatu eta irakurri. Hondarrean Kepa eta Elorri etxeratu ziren...

Euskaldunek Aita Sainduaren baietzaren berria gozoki onartu zuten. Zioten ez zutela horregatik urgulutan sartzerik, eta diputatuak hitzeman basilika ahal bezain laster altxatuko zutela. Iñaki Karrakoil, bere aldetik, lanean ari zen bere Donibane Garaziko laboratorioan zenbait erremedioren asmatzen, Baigorriko kantonamenduko lur gorriari sendatzeko poderea emateko. Zeren hemendik goiti mirakuluak beharko ziren egin, Irulegiko santuarioari zinezko pisua eransteko...

-IV-

Negu bat pasatu zen. Euri eta haize zirimola askorekin, Euskal Herrian hain zaila den iragaiteko negu luzea. Jon Kapagorri, Parisen eta Bordelen ibili zen, bere gogoko basilika gotikoa eraikitzeko, kemènez betea, kreditoen bila. Primaderaren lehen egunean, ministroak gutun bat igorri zion:

«Diputadu laguna,

»Gure azken ministroen arteko bilkuran bi miliar diru berri desblokatzea erabaki dugu, Frantzia osoa ohoratuko duen basilika horren altxatzeko. Orain zuei esku!

»Egia erran nahiago dugu zerga-pagatzaileen dirua manera horretan enplegatu, euskal kulturarentzat baino ondorio gehiago bait dakarkigu. Diputadu laguna, suerte on, eta anartean gure agurrik beroenak har itzazu...»

Bai, beste denboretan ikastolen alde borrokan ari izan ginelarik, frantses gobernu sozialista askoz zekenago eta bekaiztiago agertu zen. Funtsean, ez zituen euskaraz egiten ziren ekintzak laguntzen, baizik eta aintzinetik segurtatu-

rik, euskararen salbatzea gaia eta Euskal Herria baketzea xedea zeukaten erdaldun antieuskaldun amorratuak. Berak «malgoak» deitzen ziren. Besteek «har malats kolaboratzaileak» izendatzen zituzten. Bon, hau dena iragana dugu. Ez du balio prehistoriako mamu ergel horien berpiztea!

Maiatzaren bigarren egunean mirakulu bat gertatu zen, oraindik mundu guzian famatua zen Irulegiko santuario arruntean. Larogei urteko agure paralizatu batek bere zangoetan indar handi bat senditu zuen, eta korrika ibil zitekeen berriro. Bazuen hiru hamarkada, ahal hori galdua zuela... Irulegiko lehen mirakulua, maiatzaren bian, maiatza Birjinaren hilabeta dela dakigularik. Ezin sinetsia, alta jende frangok sinetsi zuten. Irulegiko plazan edonongo paralizatuz, itsuz, okerrez, mainguz edo ezin sendatuzko eriz bete zen. Irulegik ospitale bat zirudien...

Aintzinago joan aurretik lehen mirakulu horren mekanismoak esplika ditzagun: Iñaki Karrakoil medikuak, negu hotzean barna, Baigorriko lur gorriari sendatzeko boterea emateko onkailu bat asmatu zuen. Ehun gramoko errauts botoilak bareatu zituen eskualde horretako laborariei.

Urririk. Nekazariek pentsatu zuten, kitorik denaz geroz ez dugu deusik irriskatzen. Lehen Itospe eta Dukosken alde bozkatzeko, gauza bera zitzaien burutik pasatzen... Bestalde Iñaki Karrakoilek mirakulua ongi apailatua zuen. Santa Grazin ezagutzen zuen Frantxix Kaskarro izeneko gizon zahar bitxi bat. Mendian bizi zen eta gaitzeko osagarri onean zegoen. Bizi guzian ez zuen medikurik ikusteko beharrik izan. Ordea, norbait konplize beharrean, eta Frantxixek irri egitea maite zuelakoan, mediku gaztearen eta agure zaharraren bideak, Irulegin kurutzatu ziren.

Medikuak mizpiran zizelkatu makila ferratua eskaini zion, eta bere paralisi minengatik hiru aste bizitzeko epea ematen ziolako paperak (faltsuak) bidali zizkion. Frantxix Kaskarrok aski zuen paralizatu gizonaren zauria simulatzea. Besterik gabe. Orduan pentsatzen dukezuen bezala, errez zen gizon sendo bat, paralizatua alegia, mirakulu baten medioz betiko sendatzea.

Frantxixek bere jokoa ederki atxiki zuen. Eta, lehen sendatuaren ohorea Santa Grazira ekarri zuen. Iñaki Karrakoilek sendatze hori zertifikatu zuen, deus jukutriarik suma arazi gabe.

Kipres Arbelori apezak, Afrikan hamaika urtez misionest egonak, bere apez talentuak oro bildu zituen, jendeari zerukoaren ahala goraipa arazteko. Denak, herrialde xumeenetarik hiri irekienetara, otoitzean ari ziren: Kipres Arbelori apezak asmatu otoitz bat errepikatzen zuten. Hona, zuek ere balia dezazuen, Jainkoari egin dei horren mamia:

«Zeruko Jainko Jaun ospetsua, indartsua, kartsua, hartsua, entzun itzazu zuri dei egiteko belaunikatuak direnen otoitz hauek. Ez zaitugu sekula aski eskertzen ahalko, guri utzi diguzun ohore handiagatik. Ezen zu ez bazina Jainko, eta Ama Birjina hain emazte garbia ez balitz, ni ez nintzateke apez. Bekatoros hutsa bakarrik. Segi ezazu, zeruko Jainko amultsua, Irulegin mirakuluak bultzatzen. Guk, apezek, Euskal herria fededun begiratzen jarraituko dugu. Morala kristaua azkartuko dugu, denek elkarrekin, ardiak eta artzainak eskuz-esku ibiliko garela, Jauna non nahi eta beti zure laudatzeko. Amen!».

Hitz hunkigarri horiek edozein fedegaberen bihotz errebelatuak larru ditzakete. Baiki. Gainera Kipres Arbelorik euskara ederra zerabilkien.

Ez egunero etxetan eta karrikan erabiltzen den euskara laidoz (sarbalakio, alua, astazakil edo astopito zikina) eta bekatuz estali hura. Apezek, Euskal Herrian, mintzatzen duten euskara leun, faltsu, espantoros hura miresten zuten jendeek, eta horregatik, Kipresek admiratzaile frango bazeukan.

Kazetek mirakulutuaren argazkiak erakusten zituzten, bi motetako argazkiak: sendatu aintzin (uuu itsusia!) eta sendatuz geroz (ooo polita!). Bien arteko desberdintasuna zehazki ageri zen. Irakurleak negarrez hipaka ari ziren, beren fedea nehoiz dudan jarri gabe.

Anartean herriko artesanek basilika eraiki zuten. Urte batez finitua zen. Jon Kapagorrik kantonamenduka bilkurak antolatu zituen, ikusteko bakoitzak zer aberastasun ekar zezakeen. Donapaleukoak, bere hargin hoberenak igorri zituen; Iholdikoak, bere maixturu edo zurgin trebeenak; Ostibarrekoak mila eskulangile; Garazikoak, arkitektu tropa bat; Baigorrikoak, berinda egileak:

Ortzaizekoak, koziner andana bat langile horiei jatekoa prestatzeko; etabar luzea...

Basilika altxatzea festa bat izan zen. Batasuna. Txistulariak eta hegoaldetik etorri trikitilari beroenak etorri ziren. Urte horretan, asko edan zen Euskal Herrian zehar. «Bertsularien lagunak» batzarreak bere kideren bat edo bi, delegatzen zituen gauero entzuleentzat saio kartsuak egiteko. Bertsulariek, apezen euskaldun/fededun ideologia ekartzen zuten. Nola lehen gobernuak, orain apezpikutegiak tratu bat firmatu zuen «Bertsularien lagunak» elkartearekin. Ez zen hain zaila izan, bertsulari guziak erdi apez zirelakoan.

Festa giroa beraz. Harriz-harri eraiki zuten basilika, Pariseko katedrala baino ederragoa zen, altuagoa, argiagoa. Basilikaz bestalde, etxe berezi batzuk egin zituzten: lau ospitale moderno, skaner eta guziekin, hamar hotel hiru izar, bi joko kasino, putaetxe zertifikatu bat, eliza xume bat, Elorrirendako komentu berria, Ama Birjina plastikozkoak moldatzeko larehun langile har ditzaketen bi lantegi, eta azkenerako utzi dut, sendatzeko lohi zizaretsuz bete bost maina leku...

Jon Kapagorri diputadua arras pozik zegoen. Hor altxatu zituen etxe taldeek, ongi funtzionatzeko, bederen bost mila langile beharko zituzten. Urtero, Irulegiko Ama Birjinaren santuario aberatsaren omena emendatuz joanen bait zen, bi mila langile erantsi beharko ziren, lehen bost mila horiei. Etabar. Gazteen formatzeko ez zuen ahantzi informatika/elektronika eskola bat muntatzea, zeren Irulegin sendatze guziak konputer edo ordinaturrez kondatuko bait ziren. Gainera Irulegiko santuarioak ez zituen bakarrik Irulegin enplegatuko langileak. Fedearen komertzio horretan, Euskal herri osoko artesaniak eta industria txikiak sartzen ahalko ziren, *en amont* edo *en aval*. Halatan langabeziaren mehatxu beldurgarria ezeztatua zen. Mirakulu bat.

Jon Kapagorrik euskara asko maite zuen, eta erabaki zuen herrialdeetako beste indar ekonomiko eta politikoekin basilikan, eta basilika inguruko tokietan hitz guziak euskaraz ematea, erderazko itzulpenik gabe. Horregatik bizpahiru idazle ezagunei hiztegi erdal/euskaldun bat izkriba-

tzea manatu zieten, leku sainduetan ardurenik erabiltzen diren solasekin. Halatan, euskara ere inportanta bilakatua zen, eta ez zuen oraindik salbatua (bekatoros gaizoa bezala) izate beharrik. Mirakulu bi...

Jon Kapagorrik pentsatzen zuen, bera eta bere herkideen lanaren aintzinean zutik plantatzen zelarik, munduan ez zela nehon Irulegin, Euskal Herrian baino diru uhain lodiagorik pasatuko. Erran dezagun ere, frantses gobernu elkor eta zekenak, eman kreditoak ez zuela «itzul hadi» izengoitirik. Beraz alor guzietan irabazle ateratzen ginen...

Agorril haseran berri triste bat zabaldu mendi eta oihanetan, Elorri Bazterrek azken hatsa botatu zuela, jabearen eskuetan emanez bere gero zoriontsua. Haragi min bat bezala hedatu zen berria, eta plazetan ikus zitezkeen gizon-emazteen begiak, negarrez artzearen bortxaz, gorriak eta sufrantzez hantuak ziren.

Hiru egun berantago ehorzketa ixilak egin zizkioten,

Jon Kapagorri, Kepa Oihenarte, Iñaki Karrakoil eta bere ama zituela segitzaile bakarrak.

Apez batzuek ere, beren buruak Elorriren ohoreari lotzeko asmoz, etorri nahi zuten, baina Kepa Oihenartek apezpikuari, neska zoritxartsuaren testamentua, erakutsi zion, eta erran hobe zela, laster saindu bilakatuko zen Elorri honen desirak hatz-hatzez segitzea. Apezpikuak, bere apez armada beltzei etxean egotea manatu zien, beraz. Baina nehork ez zuen obeditu...

Enterramendu handia izan zen: herritar eta atzerritar guziak bildu ziren Elorriren kutxa zizelkatuaren inguruan. Kutxa hori eske batek pagatu zuen, Bazterrekoak pobreegi bait zitezkeen horrelako arte lan fina ordaintzeko. Kipres Arbelorik, usaian bezala, bere alde monopolizatu zuen zeremonia hunkigarri horren kudeatzearen ohorea. Aitortu behar dugu fede azkar batekin konplitu zuela bere eginbidea... Bazen tristura, bazen pena, bazen negar samin Irulegiko inguruetan. Elorriren gorputz hotza lurrean sartu zutenean, eta fidelek «zerua, zerua, zerua saritzat» kantatzen zutelarik, iparraldetik hodei lodi bat etorri zen, ezin bestean hau ere ortzantz mehatxudunetan lehertu zen. Azken lur palatara kutxaren gainera botatu zutenean, zimizta zilar

batek Baigorri aldeko lur gorria larrutu, zauritu, hautsi zuen... Denek pentsatu zuten zimizta hori Jaun Goikoaren botza zela, eta belaunikaturik, ardura, egin ez zituzten bekatuentzat barkamenduka hasi ziren...

Baina...

Baina apezek eta fededunek jakin gabean, beharrik, lurrera eraman zuten Elorriren kutxa hutsa zen. Esplika dezagun: neskaren hiltzeraren berria hedatu zelarik hila baino lokartuago zen Elorri, eta hori Iñaki Karrakoilek asmatu pikura bereziaren bidez. Deus ez balitz bezala, kartsuki, kutxan ezarri zuten lekuko askoren aintzinean, Irulegiko elizaren kalastrapuan. Ordea, ehortz egun bezperan, Iñakik, Jonek, Kepak eta amak kutxatik kendu zuten gaua-gauari beste pikura baten medioz iratzar arazteko.

Segidan, lauek muga pasatu zuten klandestinoki Arnegin, Luzaideraino joateko. Elorri gazte eta lorios zen oraino, eta Luzaiden lasai bizitzeko biloak horiz tindatu zituen, nortasun agiri faltsu bat egin araziz gainera.

Horrela, Jonen eta Elorriren arteko maitasun bikainak aintzina iraun zezakeen. Kasik astero,

aferak bazterrera utzirik, diputaduak muga iragaiten zuen Arnegin, Luzaidera heltzeko. Ze oren amultsuak erretzen zituzten elkarrekin! Elorrik zioen bere maitetxuaren belarrietara mila aldiz nahiago zuela Jon Kapagorri gizon hilkorra ikusi, beste zeruko andere sexy hura baino. Elorri ez zen emazteen arteko amodio gurintsuen zale.

Luzaiden, Elorri, Gloria Patxaran izen golfoaz ezagutua zen. Eta Jonek huts utzi denborak, maitasun kondu, Egil Zakilgor deitu artzainarèkin betetzen zituen. Baina ohartzen zen, gero eta maiteago zuela hainbeste opari aberats zegizkion Jon Kapagorri hura. Gorputzarekin fidela ez bazen beti gure Elorri, sentimenduetan bederen hala zen!

Back again: Irulegiko hilerrian lurrera eman zuten kutxan ez zen nehor. Elorriren ehorzketak komedia handizkoak izan ziren. Harriaren gainean, zizelkari batek, urririk, hitz hauek grabatu zituen: «hemen datza, Elorri Bazterre, hamabost urtetan zendua eta bere begiz Ama Birjina ikusi zuena. Otoitz egin dezala guretzat». Segur, bere gisan, Elorrik Luzaiden herriko jendeentzat otoitz egiten zuela!

Egunero, turistaz eta fededunez kargatu autobusak, heldu ziren Irulegira, elorriren tunbaren harri lauzean loreak eta emaitzak pausatzeko. Zernahi uzten zuten hilerrian: janariak, foetus hormatuak, zakur ustelduak, kaixa xingoladunetan bildu kaka mordoak, jantziak, slip eta *soutien-gorge* delakoak, denak sexyak... Orduan, Irulegiko hilerriak aire eta usain berezi bat zeukala erratea ez genuke hain gezurra...

-V-

Irulegiko basilika zoragarria martxan jarri zen mementoan, pozezko oihu luze batzuk entzun ziren Euskal Herri osoan. Beso eskaintzak herri guzietarik etorri zitezkeen, bat batean, irratiek berriak zabaldu orduko. Lehen astean berean zazpi mila langile, emazte eta gizon, hartuak izan ziren. Xomajia ezagutu zutenek plazer handirekin ikusi zuketen, basilikaren ekintza hori: azkenean, hilabetea berrehun liberarekin nola bukatuko buruhaustearekin fini! Mirakuluak mirakuluak dakarzki...

Biharamonean berean leku saindu horretako etxeak xinaurri langile lasaiez bete ziren: ospitaleetan medikuak eta infirmertsak hasi ziren atzerrietarik jin erien artatzen, denek beren diplomak bazituzten; hoteletan, sehiak milaka, kozinerrak, estandardistak eta Pariseko euskaldun ostatuetan hainbeste ibili zerbitzari ttattardunak; joko kasinoetan grupier delakoak, eta putaetxeetan neska beltzaran lirainak galtza xuri resillekin, irri hitzemankorrak ezpainetan. Irule-

gin populu langilearen izerdia bazarin. Zoriona hondarrean. Zazpi mila jende horiek bederen soldata segurtatua zuten, bulta batentzat.

Hilabetero soldata erdiesten dutenek salgai diren gauza ainitz eros dezakete, beraz borrobilketaz, komertzioa eta herriko industria soila aberasten dute.

Barre eta Delors ministroek, lehenago, ez zuten hain aise zuzendu Frantziako ekonomia. Erran dezagun ere, ministro horien lan bakarra aberatsak aberastea izan zela. Besterik gabe... Baina Irulegin isurtzen ari zen diru uharrak herritarrak oro bustitzen zituen. Zinez, Euskal Herri hau paradisu idiliko bat zen/da...

Geroxeago, bazetozen jendeen kopurua begiratuz, Diputatuak pentsatu zuen behar zela Puyootik Donapaleun gaindi pasatuko zen trenbide bat eraiki, Irulegi eta Baigorriraino. Linea horren auzoko laborariek, urririk eman zituzten trenbidearen egiteko, lur puska batzu. Horretarako ere bost ehun langile hartuak izan ziren, eta bi astez Puyoo Irulegiri lotua zen burdinkiz. Oraindik, T.G.V. tren laster moderno haietarik bat ezarri zuen Trenen Pariseko Buruzagitzak, kukuaren

kantuen erdian altzeiruzko txori baten txistu arinak entzuten dira.

Frantxix Kaskarro izan zen Irulegiko lehen mirakulutua. Oroitzen zarete, agian, nola simulatua gertatu zen mirakulu hori. Geroztik, ez dakit zenbat mila jende joan diren beren etxe eta herrietara, zeinek bista aurkiturik, zeinek mintzatzeko ahalak eskuraturik, zeinek entzutekoa, zeinek zangoen gainean ibiltzekoa, zeinek azkenean buruko minak sendaturik. Fedea handiagotuz bazihoan. Ordea, hau propaganda hutsa baizik ez da, azter dezagun mamia: egia ez da, dudarik ez, hain sinplea!

Hona beraz: eri bat, Irulegira otoitzez heldu delarik, bere sendatzearen grazia Ama Birjinari galdegiteko, segidan sartzen da ospitalean eta Iñaki Karrakoilen eskuetan dago. Itzul gaitezen iraganaldira, molde hori zintzoago agertzen bait zaigu. Kuku!... Iñaki Karrakoil medikua abila zen, berak asmatzen zituen erremedio diabolikoak; eriak lotan zeudelarik, edo ahoan, edo sudurrean, edo ipurdi ziloan sartzen zizkieten, bortxaz. Biharamonean Ama Birjinaren aintzinean belaunikatzen ziren, bai paralizatuak ere, eta

deika hasten. Otoitzaren ondotik, basilikan, Kepa Oihenartek kanta arazi meza entzuten zuten, ostia hartzen etab., joaten ziren mainuetara.

Mainuetan, hamar bat mutiko lerden, hor zeuden beren lana zeinek hobekien betetzeko xedearekin. Martikorena familiaren kantu famatuenak abesten zituzten goizetik arrats, non ez zuten estereo katenan Itoizen, edo Zaramaren, edo Hertzainaken, edo Sid Vicious delakoaren diska zahar bat, ildoak higatu arte pasatzen. Beraz airoski ari ziren... Batzuek «Gure Irratia» eta «Irulegi Irratia» ezkutatzen zuten, besteak «Argia» edo «Susa» irakurtzen ari zirela. Euskal kulturan mainatzen ziren, mainu sainduetako lankideak. Esplika dezagun mainu horien konposaketa biologikoa: Baigorri aldeko lur gorriz osatuak ziren, haietan zizare lodienak barnean emanez, ezen zizarean bait zegoen Ama Birjinak eman sendatzeko indarra... Eriek behar zuten salda berezi horretan bi oren gelditu, zizareak sudurretik, belarrietarik, ahotik, uzki zilotik eta gorputzeko beste toki ireki guzietarik sartu arte... Kura hori finitzeko, lurrez hantu zizare ma-

lats lodiren bat jan behar zuten, Elorri «zenak» bere denboretan egin zuen bezala...

Mainuetako langileen lana zen, zizareak, eri sendatuen gorputzetarik aliketekin kentzea. Beren lan tresnak ez zituzten hondatzera utzi nahi, gero. Ohartu ziren, zizareak, beren forma itsusiagatik, abere endelgatsuak zirela. Nekadura handiko gauetan, langileak zizareekin ari ziren solasean... Paria dezagun, mirakuluak, desgustuak eta gohaindura zahar batek bultzatzen zituela. Horregatik, Lurdeseko ura arras motela zen, eta dudarik gabe horrek zegien Lurdesen hain mirakulu guti obratzen zela, azken urte hauetan...

Irulegin sendatuek, kura bukatu eta, Ama Birjinaren harri tailuaren aintzinean, sendatzearen prozesoaren sekretua gordeko zutela hitzematen zuten. Halatan, fidelek ez zekiten nola gertatzen ziren Irulegiko sendaketa oparoak. Eta hobe zen haientzat, zeren zeozer ikasten baldin bazuten, segur gaude, nahiagoko zuketela itsu, edo paralizaru gelditu, zizareak desgraziaz irentsi baino. Segur gaude!

Anartean, Jon Kapagorrik eta Kepa Oihenartek dosier mamitsu bat muntatu zuten, Erromara Aita Sainduari bidaltzeko, lehen bait lehen naski. Bi mutiko hauek presatuak ziren; Elorri, goizegi hila, beatifikatzeko paper eta dokumentu guziak bildu zituzten. Holatan, berrehun kilo paper igorri zituzten Erromara, Baionako apezpikuaren baimenarekin, *transport en gros* zegien kamioi handi batean.

Aita Saindu polones kanutozaleak paketa hori eskuratu zuenean, irri egin zuen. Bere lege-kanoi dotore armada beltzari afera horretaz ongi okupatzea eskatu zion. Bazekien Aita Sainduak, Kepa lagundu behar zuela. Marzinkus kardinaleari erran zion Banku Batikanoko kutxa azkarretan, lotan zeuden bi urre puska pisu eraman araztea, mahai pez, komunismoaren kontra borrokatzeko, Irulegiko santuario berrira. Marzinkus delakoak obeditu zuen, hau ere amerikano izanez geroz, antikomunista amorratua bait zen. Urre pila horrekin batera, gutun bat igorri zuen Erromako apezpiku polakoak:

«Kaixo, Kepa:

»Zure dei hunkigarria eskuratu dut duela aste bat, eta espero dut, agian, luzapen hau barkatuko didazula. Lan frango ukan dut, ezen frantses presidentea errezebitu bait dut, eskola laikoen eta eskola libreen arteko borrokaz mintzatzeko. Erran diot zer egin behar zuen: lehenik eskola laikoak debekatu eta gero, eskola libre katolikoei eman diru guzia. Eskola libreak bait dira komunismoaren kontrako gudukari zintzoenak eta indartsuenak. Bestalde, egun berean Le Pen Europako diputatua ikusi nuen hemen. Zein gizon xarmanta, gozoa, elekaria, horrek merezi duen errespetua handia da. Badaki musulmano eta komunistekin nola jokatu behar den: beren armekin, erran nahi baita bortizki... Nire konfiantza osoa eman diot. Baina ez dizut horregatik bakarrik idazten: zera, Elorri gaixoa, ahal bezain laster beatifikatuko dugu. Eta heldu den urtean nihaur joango naiz Irulegira Elorri, sainduen lerroetan, jartzen dugula munduari agertzeko... Bestalde marixuana puska bat (hamar kilo) igortzen dizut, urre pila hauekin. Bon, arren, laster arte beraz, Kepa nire hiltzerainoko adiskidea!».

Jon Kapagorrik eta Kepa Oihenartek gutun hau irakurtu zutenean, beren artean pentsatu zuten Aita Sainduak burua arras galtzen ari zuela. Segidan, autoa harturik, Luzaidera Joan ziren Elorri alias Gloria Patxarani berria emateko. Arnegiko mugan, gin-kas aberats bat edan zuten, zintzurra lehorra zutelakoan.

Elorri arrunt aldatua zen, zinez emaztetua: bular lodiak, ezpain gurintsuak eta gantza gerrian borrobilkatua. Irriz karkaraka hasi zen bere bi konplizeak ikustearekin, tabakoak horitu hortz zabalak erakutsiz. Luzaiden, Gloriak, putaetxe bat zatxikan, eta afera asko zegien, bereziki jakiten zuelarik kontrabandistek zerbait egin behar zuten gauetan espainol eta frantses muga-zaindariak bere etxe berezira gonbidatuz, gaua kanpoan baino goxokiago pasa zezatentzat. Eta beti erreusitzen zuen, halatan muga finkorik ez bait zen euskaldunentzat. Etxe horretan erabiltzen zituen neskak Asiatik etorri bot-people haietakoak ziren gehienak: txikiak, beltzaranak, umilak eta erdal hizkuntzarik uler ez zezaketenak. Euskara gau-eskoletan (zeinetan barkamendurekin?) ikasia zuten...

Konprenitzen duzue orduan nola hartu zuen, Erromatik bi mutikoek ekarri beatifikazionearen berri traketsa. Apez horiek astoak zirela erran zuen, bihotzetik atera oihu baten gisa. Aita Sainduak eman urre brika bat ukan zuen, eta bere bi lagunei neska asiano pulposaren bat hauta zezaten eskaini zien. Jon eta Kepak bat bientzat eraman zuten, gaineko gela arros batetara. Gau guzian ontsa jostatu eta jokatu ziren hirurak, homo eta heteroen sexual manerak oro aztertuz. Mi Lin (neskaren izena da) ohean tripaz gora etzana zegoen, Jon Kapagorri barnean zuela, bizkitartean Kepak Joni bere makila ferratua ipurdi ziloan sartzen ziola. «Goiti eta beheiti badabilazu oi beti» dio Ziberoko Kantu zahar batek; hor ere Luzaideko mihiseen artean, gorputz meta izerdiz trenpatuak era berdinean bazebiltzen...

Bortxatua naiz moralik gabeko istorio horiek kondatzera, egiak bere bidea baduelakoan, eta istorioa gustokoa ala ez ukanikan, jendeei erran behar da: hau dena egia baino gehiago bait da! Hona datozen lerroetan Luzien famatuak, Luzaideko lizunkeri zentrotik hain urrun, Irulegin ze-

ruari hain hurbil, hango laborari trastu bati bildu solasak:

– Errazu baduzue xantza, Irulegin bizitzeaz?

– Bai, alde batetik suerte handia da guretzat diru freskoa sartzen bait da gure moltsetan, baina beste aldetik desplazer bat, gure lehenagoko pobreziak uzten zigun trankiltasuna joan bait zaigu. Nik segur bizitzeko lasaitasun hura nahiago dut oraino...

– Halere, bizitza kanbiatu zaizue, atzerrietako jende gehiago topa dezakezuelakoan, ala hori ere gaitz bat bezala nabaritzen duzue?

– Gaitz bat dela, ez dut osoki erranen, ez da ordea arras ongi bat: gaurko pelerinoak atzoko turista zikinak bezala ibiltzen dira, iduritzen zaie hemen zernahi egiten ahal dutela, herrialde konkistatu batetan aurkitzen direla; behin, sendatu paralizatu frantsesez mintzo zen batek, plazako ostatuko Maritxu biolatu zuen, ez osoki, kasik, beharrik Etxebarneko Pettan etorri zen, eta frantses hari indarrak moztu zizkion. Badakizu, Luzien, banuke horrelako istorio zikin frango «Gure Irratia»n eta Irulegikoan kondatzeko...

– Orduan, zu ez zara sobera ados orain Jon Kapagorrik segitzen duen politikarekin?

– Pentsemazu Luzien, nik azken bozkaldietan ez nuela batere komunista xanfarin horrentzat bozkatu, usaian bezala Itospe bankero xuriari emana mien botza. Hark, Itospek, ez zuen deus onik egiten Euskal Herriaren alde, baina hau on gehiegi egin nahiz gaizki askotara lerratzen da, eta herria, bere diputatuarekin batera.

– Zer muntatuko duzue?

– Ba, asmatu dugu atzo arratsaldean Komite Anti Amabirjina bat muntatu behar genuela, ostatu berdinean biltzen garen lagun batzuren artean. Agian Jon Kapagorri diputatuak gure karrasiak entzunen ditu. Bestela Komite berri horretaz mintzatzen adituko du, gero ere...

– *Déclaration de guerre* honekin uzten zaitugu adiskidea, eta mila esker denetaz.

– Bai mila esker zuri...

Basilikaren inguruan hedatu fedearen komertzioek ekologisten eta «laborariak beti petzero» leloarekin bat datozenen artean iskanbila sortzen zuten. Baina, erran dezagun, Komite Anti Amabirjina horrek bi egun baizik ez zuen iraun:

Jon Kapagorrik bi milioi berriko txeke bedera eman zien talde horretako hamar partzuerei. Isilik eta kitto!

-VI-

Basilika ederraren estrenatze ofizialaren egun zoragarria etorri zen. Egia erran, jadanik Baionako apezpiku erdi-kaskoinak gogo onez benedikatua zuen, egin ondoko lehen urtean berean. Baina, oraindik benedikapen orokorra faltatzen zitzaion: elizaren indarra bat zen, beste bat estadoarena. Ez dut nik horretan, batere, elizaren eragin handia gutiesten...

Jon Kapagorri, mila aldiz baino gehiagotan ibili zen Parisen gaindi, hango presidenteari Irulegira jin zedin, belauniko galdaka. Estrenatzeak festa izugarri bat izan behar zuen, alainan. Izuran, gertakari ospetsu horri buruz, helikopterendako aireportu moderno bat eraiki zuen departamenduak. Aireportu hori gerorako ere balia zitekeen, eri kiskalduen ekar arazteko munduko edozein tokitatik. Obra ona zen beraz!

Frantzia zekeneko presidentea etorri beharra zelako berriak, jendeak arras poztu zituen; ez guziak ordea, bait ziren beti meskontent agertzen zirenak. Denbora haietan Giterran jauna

zuten buruzagitzat. 1981.eko maiatzaren 10ean Brizkar, gordinik eskandaloz errea etxera, porru landatzera, igorri zuen Giterranek. Artean ez zuen gauza askorik egin bere herriaren (Frantzia) eta gure herriaren (Euskal...) alde. Frango sasietan desesperantza aieruak nabari zitezkeen. Beno, utz dezagun horretan frantses gobernuaren ekintzen kritika erreza eta Giterranen jiteaz poztu gaitezen!

Lehen aldiz zen, presidentearen zazpikada luzean, Euskal Herrira heldu zela. Terrorismo famatu huragatik ez zen menturatzen Miarritze aberats alde hauetara mugitzera. Beldur zen GA-Lekoek zerbait gaizki eginen ziotela, hegoaldeko errefuxiatuak «frantzian» atxikitzen zituelakoan. Bitartean, hemen gure artean bizi ziren herbesteratuak, garbiketa gisa, lekuko notableen laguntzarekin, denak Kubara bidali zituen. Lan nazkagarri bati hasi zen, baina burges semeak oro kontent ziren, beren afera zikinak bakean konpli zitzaketelakoan! Horregatik, Seaska Ikastolen federakuntzak, ikastola bat ireki behar izan zuen Habanan, Kubako hiri nagusian, euskaldunen haurren hezteko...

Erran gabe doa, Giterran jaunak, fama oso txarra zuela euskaldunen artean. Hau, arrazoi bat litzateke: gizon goseti horrek hitzemanak jan zituela, herria Brizkarren denboran baino zapalduz eta umiliatuz. Irulegiko auzapezak zioen, denetan, ez zuela sekulan berak bere herrira, frantses presidentea gomitatuko, bazekielakoan zer gertatzen zen, erdal hautetsirik gorena, errezebitzen zuten alkateri... Ikus bada: duela zenbait urte Arrantsusiko merak Brizkar agurtu zuen, eta ondotik, bere buruaz beste egin zuen. Karga batzuk badira pisuegiak direnak bizkarrean karreatzeko... Isil gaitezen, hil baten memoria molestatu baino lehen!

Baina, Egun-Ea etorri orduko hautetsien, diputatuaren eta jendeen arteko kalapitak jabaldu ziren. Denek elkarrekin, azken bilkura batetan bildurik, erabaki zuten gaitzeko ongi etorri bat egitea Giterran jaunari. Nehon obratzen ez ziren gauza haietarik apailatzen ari ziren, presidenteari agurrik beroenak ematekotan.

Izurako aireportu berrian ehun milako jende tropa bildu zen. Giterranen izena, Ama Birjinaren izena balitz bezala, oihukatzen zuten. Bere deitura ohoragarria ospatzeko, Izurako auzapez zaharrak gita (ahate) luma gris-hori bat eskaini zion, eta presidentearen emazteari antzera gibel mehar bat. Ez zion, alainan, etxean zuen gibelik ederrena emanen, berentzat aski ez ukanki eta! Donapaleuko mera lodi gurintsuak, berak kario erosi makila ferratua zemaion. Honek ez zuen halere, bere opari aberatsekin, bere burua tetele senditzen. Besteak oro irriz ari ziren, Donapaleuko auzapezaren trufan...

Euskal Herri barneko zirkonzkripzioak ez zuen oraino presidentearentzat, Limousine beltz berebilik erdiesteko denborarik ukan. 2CV bringil batetan eraman zuten Irulegiraino. Bost ehun bat CRSek eta gendarmeek inguratzen zuketen, bederen bost ehun, presidentearen auto girgila. Teufteufka entzun zitekeen beribil hori, eta bide bazterretan metatu jendeek autoaren gainera zernahi gauza botatzen zituzten: zaldi kaka borobil freskoak, luma gudronez inguratuak, ongarria furtxinatraka, mendietan hil ardien haragi

puska ustelduak eta hezurrak. Presidentearen autoak presenta guziak hartzen ez baizuten, CRSek eta gendarmeek aspalditik hartzen zituztenak oro biltzen zituzten. Ibilaldi historiko hori ikusgarria zen: moto elkorretan zebiltzen CRSak zaldi kaka pixaz bustien gainean lerratzen ziren, eta lurrera plast erortzen...

Irulegira heltzean, burrunbak isildu ziren. Oihal zuri batetan «ongi etorri Giterran presidenteari» idatzia zen. Lehendakariak burua altxatu zuen eta betezpalak, usaian bezala, klixkan hasi zitzaizkion. Hainbeste aldiz keinu bipil horiek telebistan agertuak ziren, presidenteak zerbait erabaki latzen berri jakin arazten zuelarik. Mintzatokira abiatu zen; han herriko mikro guziak irekiak ziren, presidentearen solasen zain. Paltopean jendeak irriz karkazailka ari zitezkeen, ordea burua zuzentzen zutenean arras serios ziruditen.

Hautetsi bihi batek ez zuen ongi etorri predikua egin nahi izan. Funtsean ez zekiten zer erran, sekulan, telebistan baizik noski, ikusi ez zuten frantses presidenteari. Orduan, Itospe kunkurtuak hitza hartu zuen, lañoki, motelki,

konbikzio handirik gabe. Itospe Giterran zale baino Brizkarzale amorratua zen. Hona haren eleak:

«Bon, beraz, ongi etorri. Euskaldun gehienek zure bisita aspalditik idurikatzen zuten. Ni zure aldekoa ez izanagatik ere, kontent naiz, zuri agur bero baten emateaz. Agian, biziki gustatuko zara gure artean. Hona, gure kantonamenduak egiten dizun presentea: oraingo traturrekin nolaz ez dugun idien beharrik, id, pare bat eskaintzen dizugu. Heziak dira, eta nahi duzunean, manatzea aski zaie, ezker edo eskuin doaz, zure politikaren arabera... Parisen, horrela, *effet boeuf* delakoa egiten ahalko duzu. Besterik ez!».

Entzuleek, presidenteak, eta indar armatuek poliki txalotu zuten Itosperen mintzaldia. Hitz horietan ez zen iraultza orantzik, baina euskara garbian eta purrean elekatzeagatik eskertu zuten, herriko diputatu ohia!

Gero Giterranek basilikaren inguruan luzatu hiru koloretako xingola haixtur kamustu batzuekin moztu zuen. Baina frantses hiru koloreak ez ziren hain aise pikatzen. Jon Kapagorrik, Irulegiko laborari bat igorri zuen tronzoneusa baten

xerka, xingola madarikatu horren zatikatzeko. Pentsa bestela nola estrena zezakeen presidenteak, jendeak zoriontsu jartzen zituen basilika hau? Ordea, oren erdi baten buruan, beren lana erreusitu zuten tronzoneusaren bitartez. Jon Kapagorrik ez zuen hitzik erraten, eta presidentea joan zen pupitrera bere mintzaldi historikoa ahozkatzeko. Honela hasi zen:

«Frantses maiteak,

(txistuak alde guzietarik; gaizki hasten zen mintzaldia)

»zuen ongi etorri bikainak ohoratzen nau, eta pozez betea nago. Hemen gertatu direnak hurbiletik segitu ditut, nire Pariseko bulegoan Elorri zenaren argazki bat badaukat horman lotua. Goizero otoitz egiten dut, gure Frantzia eta bereziki gure ezkerreko gobernu sozialista bere gerizapean atxiki dezan.

(txaloak erditik)

»Baina, nahi nuke, Euskal Herria orain arte bezala frantses egon dadin, Euskal Herri euskaldun batek ez bait du itxurarik. Nire ahalmenak oro jokoan sartuko ditut karia horretara, erran nahi baita, hemengo santuario berri hau zaintze-

ko Mont-de-Marsanen dagoen militar armadaren zati bat honarat igorriko dudala.

(txistuak eskuin aldetik)

»Isil daitezela txistuak: duela zenbait urte Euskal Herri pobre honetaz axola guti baldin bagenuen, gaur goitik arras diferenki ikusten dugu egoera: Irulegiko santuario honek Arabiako petrolio guzia baino balio gehiago badu, eta ez dugu ezaxola pare batzuen eskuetan utziko.

(txistuak denetarik)

»Aspalditik herri hau gangrenatzen duen terrorismoaren kontra borrokatuko gara. Ez duzue, zuek euskaldun zintzoek, zuen itxura zikindu behar. Guretzat, frantses edo euskaldun, batera heldu baita azkenean, gaitz bat litzateke, istripu ezin sinetsizko bat. Orduan, ibil gaitezen, eskuzesku biolentziaren aurka, zeruko Ama Birjinak eskatzen digun bezala. (txalo beldurtiak CRSen artean)

»Hitzematen dizuet, hemen zuen artean nagoenez geroz, euskal kultura garbia, abertzale porrokatuek oraindik ez kutsatu kultura eder hura, diruz laguntzea: zentro kultural bat eraikiko dugu Donibane Garazin, Baionan egin genue-

naren antzekoa. Halatan, euskal idazle hoberenak eta kreatzaile adoratuenak suprefeta, prefeta, kontseilu generala eta ministroaren mezulariak izango ditugu. Hiru lehenek euskal kultura aberastu dute, kristoren obrak kaleraziz. Gauza bera egin dezakegu Donibane Garazin, euskal idazle berriak sortzeko eta sustatzeko.

(txistuak txaloz nahasiak)

»Erremertziatzen dut Jon Kapagorri gure politikaren eskumakil fededuna. Erran behar nituenak erranak ditut. Gora Frantzia, gora Errepublika, gora Eskual Herria!».

Txalo faltsuek, kexu zeudenen txistuak gainditu zituzten presidenteak ohizko hitzak, eta betiko promesak zegizkien. Jendeek ongi bazekiten ez zuela haietatik bihi bat atxikiko.

Giterran sinesduna zen, eta Ama Birjinaren otoizteko basilika nagusian sartu zen. Mirakulu bat gertatu zitzaion, belaunikatu zelarik: azpi artean, aspalditik zimurtua eta indarrez hustua zuen ziria altxatu zitzaion, hain azkarki, non bere «untzitxipi» galtsoina, zilatu bait zion. Kepa Oihenartek hori ikusi zuen, eta segidan, marmar-

mar Ama Birjina sexyari eskerrak bihurtzen hasi zen. Irri egiteko gutizia zuen anartean...

Elizatik atera zen jaun presidentea. Bere bi eskuekin, eta barnean erosi «Maiatz» aldizkariarekin, partidak gordetzen zituen. Presidenteak ez zekien, Iñaki Karrakoilek, Irulegiko plaza erdian eman zuen errezepzionean edan zuen ardoan mandotasunaren kontrako erremedio bat ezarri ziola. Giterran zoriontsu zegoen, are zoriontsuago bere emaztea.

Jendeak jaten ari ziren: basilikaren aintzinean, bi taula luze zabalduak izan ziren, eta haien gainean hamar basurde baziren ikusleri janaritzat Jon Kapagorrik emanak, eskuin aldean bost barrika arno zutik zeuden, gero eta edale gehiagoz inguratuak. Giterran jaunak ez zuen basurdekia maite, eta hotel batetako kozinertsa batek steak-frites plata bat egin zion.

Denak ase ondoan, Giterranek jendeak agurtu zituen, eta hitzeman horrelako mirakuluagatik, bere ministro guziei Irulegira itzuli baten egitea manatuko ziela. 2CVa hartu zuten, eta CRSekin, Izurako aireportura joan ziren, fandango aireak oraino belarrietan zituztela!

Euskaldunek ez zuten nehoiz hainbeste irri egin. Gizon elekari eta ohore bilari horiek ortzaizean galdu orduko, «bakea eta bi sos!» pentsatu zuketen. Iñaki Karrakoil, Kepa Oihenarte eta Jon Kapagorri beren jukutriaz espantuka an ziren. Beren artean, bistan dena. Jendeak ez bait zuen jadanik deusen jakitearen beharrik... Geroxeago, bai!

-VII-

Kapitulu hau ederrena izango dugu, Euskal Herri guzia «bere» basilikaren inguruan bizitzen ikusiko baitugu. Xarmangarria beraz, Itxaro Borda idazle talendutsuaren eskutik.

Irulegiko karriketan, bazen mogimendu. Mila saltegi eta ostatu, jendeen pozgarri. Fededunek diru asko ekartzen zuten, mirakuluak diruaren bidez erdiesten zirela ikasia bait zuten azkenean. Halatan, eros zitezkeen txokolatezko Ama Birjinak, plastikozkoak, erretzeko belarrezkoak, gauez argia egiten zutenak, mota orotakoak noski, ez hain merke alta! Donibane Garazin mirets zitekeen pelerinoek lurrera botatu moltsa hustuen meta bikain bat. Moltsak ere zerukoari eman opari baliosak ziren. Ez dezagun ahantz, uda minean, horma perfumatuzko Elorriren potretak saltzen zirela, Boncolac hormetxeak asmatu zituenak, bere egoera ekonomikoa in extremis zuzentzeko, eta langileak ez kanporatzeko...

Ostatuetan aldiz, edari frango iresten ahal zen. Baina preziatuena ur mirakulutsu patxaranaz moztua zen. Bazuen kristoren kolore gorri alegera bat. Jendeek asko maite zuten edari hori; bereziki mainuetara joan aintzin edaten zutelarik iduritzen zitzaien mirakulua jadanik erdikal konplitua zela. Eta horretan arrazoi zuten, segur. Iñaki Karrakoil medikuak erremedio on bat ezartzea manatua bait zioten herriko ostaler amorratuei. Rioxako arno arin hura ere ematen zuten, whiskya eta bierra epelak. Denak...

Pasa etxeak ongi ari ziren, denbora berean. Beti beteak, beti lanean: horko neskatxek ez zuten pausa eginik astean zehar. Ez zen ordea hirietan bezalako lan garbia: etxe horietan eri guziak iragaiten ziren, paralizatuak, tuberkulosoak, errabiatuak, eritasun ahalgegarrien sendatzera etorriak, sifilisdunak adibidez, sexual maniako frango, sado eta maso, itsuak eta elkorrak. Enfin, Finlandiatik jin neska horien lana ez zen batere erraza. Beharrik, gizonek eskaini diruaz gain, Kontseilu Orokorrak prima bat ematen zien. Sos horren gainean neskek ez zuten zerga pagatzerik. Beharrik (bis).

Garai hartan Euskal Herria zen Frantziako eta munduko herrialde aberatsena. Nolaz diruak diru dakarren fenomeno horrek ez zukeen azkenik izanen.

Kultura mailan bazen zer egin. Euskal kultural mundu osoak Irulegi zuen bere norantzaren erakusgaia. Idazleak ari ziren Elorri zenaz liburu politak eta mamitsuak ateratzen. Adibidez, iparralde honetako bi akademikok, Elorrik gaztetan izkribatu testoak, aztertu zituzten. Charritonen eta Haritchelarren obrak liburudenda on gehienetan aurki zitezkeen. Bi hauek euskara ederra eta garbi erabiltzen zuten, eta hori, herriko jendeei asko gustatzen zitzaien. Hiru argitarapen egin ziren lau urte barne.

Jakintsuak ez ziren atzetik gelditu: Gexan Bidart soziologo mustatxdunak Baionako LU.T.ean kolokio bat antolatu zuen, «Euskal Herriko ohiturak eta Irulegiko gertakaria» gaiarekin. Parisetik eta Madriletik jin ziren jakintsu diplomatuak, Irulegiz mintzatzera, berak sekulan han izan gabe, hango hizkuntza (gurea, beraz) ikastearen beharrik senditu ezean. Horiek ziren egiazko Jakintsuak, zinez... Gexanek, esku ezkerraz, bere

mustatx liraina ferekatzen zuen, jakintsu horietarik batek bere izena goresten zuelarik. Ageri zen guziak zeruko grazietan aise bizitzen zirela: jakintsu eta beren buruetaz arras satisfus!

Beren aldetik, Manex Pagolak asmatu poema hunkigarri batzuk, Peio eta Pantxoa kantariek diska batetan kaleratu zituzten. Urrezko diska bat erdietsi zuten lehen aldikoz, lau milioi L.P. saldu zituzten Maikel Jackson funki kantari beltz zurpailduak baino gehiago beraz. Diskoteka guzietan aire hau entzun zitekeen:

«agur Irulegiko
amatxo maitea
otoiz eta piko
bi aldiz ximiko
ama idiliko
agur bat betiko»

Ez dugu erraten ahal zuzen, zenbat kuple (gizon eta emazte), formatu ziren gauetako dantza tokietan kantu honen bitartez. Beti bezala, «bi aldiz ximiko» aditzean musu samurren ordua zen, eta «agur bat betiko» hark pitilin-alu partida goxoaren hasera frogatzen zuen. Kuple

gehienek abisu horiek hurbiletik segitzen zituzten. Ikaragarria!

Paueko eta Bordeleko unibertsitate burgesetan *Chaire d'études théologiques* batzuk moldatu zituzten, Akitaniako eta Frantziako zuzendariek. Estudianteak lasterka heldu ziren, ikasketa berezi horien egitera. Neska diplomatuek segidan atzematen zuten lan bat, pollitak baldin baziren, Irulegiko putaetxeetan, eta itsusiak komentuaren betetzeko begiratzen zituzten. Mutikoak aldiz apezgoan sartzen ziren, edo medikuntzan Iñaki Karrakoilen laguntzeko. Bazen segurki denen beharra...

Azalpen luze hau bukatzeko kondatuko dizuet zer bilakatu zen «Maiatz» aldizkaria. Talde horretako idazle ospetsuenak Ama Birjinaren eta Elorri zenaren apologista errabiatuenak bihurtu ziren; hala nola Manex Lanatuak «Elorri artetik» poema bilduma zintzo bat atera zuen, Mayi Pelotek *hard science* moldea Irulegiri aplikatu, Mari Ameztoiek Ama Birjinaren alderdi sensuala agertu zuen, etab. Ikusten duzuen bezala euskal kultura arras bizia zen ordu haietan, eta hori Ama Birjina balizkako baten agerpenagatik. Apezpiku-

tegiak hartua zuen bere gain «Maiatz» aldizkari beltzaren egoera ekonomikoa: azala xuria egin zion, eta barnekoa azalaren araberakoa...

Hona «Gure Irratia»ko Jakik bildu zuen dokumentu paregabearen zati luze bat. Jaki egon zen Txinatik etorri pelerinante batekin solasean:

– Erraiten ahal diguzu nondik heldu ziren?

– Bai. Txinako Pekin hiri nagusitik nator, hemengo neska batek Ama Birjina ikusi zuelako berria zabaldu bait zen hiriko dazibaoetan. Gure gobernuak hona etortzeko txartelak pagatzen dizkigu...

– Baina zu manera berezi batez jin zinen?

– Bai, oinez etorri naiz Pekinetik Irulegiraino. Bi urte eta erdiz egon naiz bidean, goizean goiz jeikiz, eguerditan lekuko neskak txoratuz, eta gauetan izarrei beha lokartuz.

– Bidaia ederra beraz...

– Gobi mortutik iragan nintzen, lehenik Nepal lurralde goretan zehar Indietara heltzeko. Gero Pakistaniatik Iranera pasatu nintzen, eta Jerusalemen gelditu hiru astez. Segidan joan nintzen

Mekora islamdarren jainkoa otoizteko. Horrek hiru hilabete hartu zizkidan. Turkiatik Europan sartu nintzen, eta jendea gero eta gaiztoago, zekenago zela konturatu nintzen...

– Problema asko ukan zenituen Erromara heltzearekin...

– Bai, Batikanoko guarda suisek kartzelara eraman ninduten, eta han bost hilabete egon nintzen; aterabiderik ez nuelakoz ikusten erabaki nuen kartzelatik ihes egitea, eta bueno saiatzen denak beti zerbait erdiesten du...

– Nola iduritzen zaizu Irulegiko egoera?

– Irulegik gure Shangai delakoari eite baduela aitortu behar dut lehenik. Ba, niri oso gustatzen zait. Ez naiz hemen egonen baina, bai, badu jadanik urte bat Euskal Herrian bizi naizela, ba, eta oso oso pozik. Ez dakit noiz joango naizen Txinara, ez zait batere berantesten.

– Txinan girixtino frango badago?

– Ba badira zenbait, ez asko. Baina Irulegira etortzeko ez duzu girixtino izatearen beharrik. Fedea eduki eta kito! Ustekeria txar bat da hori, guk Txinan ez dugu horrelako berezkuntzarik egiten. Leku sainduak saindu dira guzientzat.

– Finitzeko erraiten ahal diguzu nota deitzen zaren?

– Bai, segurki, Mar Kopo Ttolo... Eta zu?

– Jaki...

– Heldu zarea itzulino baten egitera?

– Ez, ez, ez... milesker!

Mar Kopo Ttolo utzi zuen Jakik, sobera urrun joan nahi zuelakoan. Euskal Herriko neskatxa maiteak aski herabe dira, arrotzen eskaintzen aintzinean. Eta, funtsean, esperientziaz diot, arrazoi dute.

Garai berean, bere afera ongi zihoala ikusirik, Jon Kapagorri Erromara abiatu zen goiz hegotsu batetan. Kepa Oihenartek aita saindua telefonoz abertitua zuen aspalditik, eta Iñaki Karrakoilek bere mediku abisua igorria zuen Batikanora, via Baionako apezpikutegia.

Miarritzen airekoa hartu zuen, première classe delakoan. Zoriontsu zegoen, txanpaina edan eta kabiar beltza jan zezakeelakoan. Bidaia osoan, «Maiatz» aldizkaria irakurri zuen. Izugarri interesgarria aurkitu zuen, baina lehenagoko

zenbakiak gogoratzearekin, bere basilikaren ideiak euskal idazleen lumak arras moteldu zituela, eta hauek haizeak nora ufa, berak hara itzulka ari zirela gaurkoan. Gainera, Donapaleuko liburu saltzaile burges batek euskara hutsezko aldizkariak gaizki saltzen zirela, ohart arazirik, «Maiatz» elebiduna baino gehiago bilakatua zen: erdia baizik ez zen euskaraz, eta euskarazko testoek itzulpen bat zeukaten ondoan.

Erromako aireportuan Italiako lehendakariak eta Aita Sainduak errezibitu zuten gure diputatu zen Jon Kapagorri. Aita Saindu polakoak musu bat eman zion ezpainetan, mendebaleko ohituren arabera. Jon Kapagorri, hunkitua, negarrez hipaka hasi zen. Karol Botila izeneko gizon sainduak erran zion ez zela zerik, eta bere lagun handia Kepa Oihenarte zuela... Jonen malkoak lehortu ziren. Espres, alegia ari zen, Aita Sainduaren bihotzaren engainatzeko. Eta ontsa erreusitu zuen...

San Piarres enparantzan Jon Kapagorrik hitzaldi bero bat egin zuen:

«Karol Botila adiskidea,

»Engoitik badakizu zer gertatu den, Irulegin, duela bost urte. Elorri hamalau urteko neska freskoak Ama Birjina ikusi zuen, edo hobeki erran emazte saindu hori Elorriri agertu zitzaion. Zer berri ederra Euskal Herriarentzat, eta partikularzki euskaldunentzat. Jakin dugu saindutze prozesoa bidean dela, eta laster bukatzekotan. Gure desirarik handiena litzateke datorren hilabetean Irulegira etorriko zarenean, saindutze osoa dekreta dezazun. Zure bihotz sufritua ezagutu eta, ekintza horrek ez digu dudarik egiten. Ongi etorri Aita Saindua!».

Hitz horiekin finitu zuen bere mintzaldia. Aita Sainduak hitzeman zion datorren hilabetearen lanean joango zela berri horren ofizializatzera Irulegira. Jon

Kapagorrik bere parioa irabazia zuen.

Artistak, idazleak, abeslariak, soziologoak eta rock kantariak lanean hasi ziren, testoak, poemak, filmeak, zintak egiten, Aita Sainduaren etortzearen ohoretan. «Hertzainak» taldeak adibidez kantatzen zuen «Ongi etorri Aita Saindua» arrunt punki eta bortitz bat. Hauek, ageri zen, ez ziren sobera ados Karol Botilaren jitearen berria-

rekin. Hormetan, bide ertzetan, hitz hauek irakur zitezkeen: «Aita Saindua=yankee: Etxera». Baina jende gehienek erabaki zuten Karol Botila, Giterran jauna bezala, errezibituko zutela... Orduan, kasu

-VIII-

Aita Sainduaren «mystere 20» delako supersonikoa, Izurako aireportuan pausatu zen, zarata handiak eta kristoren desmasiak eginez inguruetan. Gure oihanetako arbolak hostorik gabe gelditu ziren, txoriak ahotsik gabe eta erbiak belarririk gabe. Ezin sinetsia!

Bere saindutasuna airekotik jausteko, ateak ireki zizkioten; eskalerretan behera abiatu zen, tapis gorrian belaunikatzeko xedearekin. Baina, Izurako aireportuko langileak ez ziren prest oraindik, eta Aita Sainduak belaunikatzeko keinua bete orduko, tapisa haren petik kendu zuten. Orduan gauza ikaragarri bat ikusi genuen: Erromako apezpiku polakoa, lurrari musu baten emateko belaunikatu nahian, tapis gorriaren ondotik lasterka. Azkenean, bere jantzi xurietan trebeskatu zen eta, sudurra aintzinera, Etxegarai kardinalaren arropa beltzetan lehertu. Jendeak pentsatu zuen Aita Saindu hau oso komikoa zela, eta buneten azpian, irriz ari zen, karkazailka!

Etxegarai kardinale euskalduna kasik kexatu zen: «Karol, uste duzu horiek direla Euskal Herriaren agurtzeko manerak! Zuti zaitez otoi!». Karol Botilak, arpegi zimurtu bat altxatu zuen Etxegarairi, barkamendua eskatzeko moduan. Eta zangain jarri zen; arropa zuria arras zikindua zuen. Jendeek txalotu zuten, zirkoetako ekilibrista bat balitz bezala. Aita Sainduak besoak gora emanik denak bihotzez eskertu zituen. Bere mintzaldia hasi zuen:

«Agur Euskal Herria,

»Duela zenbait urte jadanik etorri nintzen herri xarmagarri honetara; ez dakizue nolako atsegina hartu nuen orduan. Zorigaitzez, ETAko terroristek nire hiltzea edo behintzat, bahitzea erabaki zuten; beharrik frantses eta espainol Estatuek neurri egokiak finkatu zituzten elkarren artean, nire salbatzeko! (txistu eta txalo)

»Orain zuekin nago berriro. Euskaldun guzientzat mila urte indulentzia dakarzkit, euskaldun bakoitzarentzat bereziki. Nire eskuinean dagoen Etxagarai kardinalak banatuko dizkizuete. Aski izango duzue sinadura bat ematea, paper arrunt baten pean, gero bakea eternitatean! Sal

mahai beraren gainean, tee-shirt batzuk ere badira «Gora Aita Saindua!» dakartenak, eta hor bildu dirua Ligue Anti Communiste (LAC) delakoari ematen dugu. Hori baita gure borroka: kristau fedea, komunisten munduan zehar zabaltzea! (txaloak apezen artean)

»Zeren gure borroka egunerokoa baita, eta dirua behar baitugu horretarako. Marzinkus kardinala dugu laneko partaide suharrena. Zorionak berari... (Etxegarai txalogile bakarra)

»Oraintxe Irulegira joanen gara, hango Elorri zenaren saindutzeko, nahiz aspalditik Ama Birjina ikusirik, sainduen zerrendan jarria dugun, gure bihotzetan. Agur, ixtant arte!».

Eskuan zituen dokumentuak plegatu ondoan, estradatik jautsi zen Aita Saindua. Denetara beha zegoen, nabari zen beldur zela ea nondik aterako zen terrorista baten edo biren kolpe hilkorra. Bere gorila kanonikoek hondarra zegiten.

Egia: atzerrietako jendea gero eta herabeago bihurtua zela gure herrira izpiritua lasai etortzeko. Iduritzen zitzaien batzuei salbaierri batetan sartzen zirela, Aturri ibaia pasatu orduko. Parisen egoten zirenek, kuraie handi bat bazutela

pentsatzen zuten. Uda haietan, gure artean trankil bizi ginen, turista konkistador horiek gabe. Gainera, haiek irriskatzen zuten lander bakarra zen beren auto-berebil-kotxe maitagarria goizetan zartatua ikustea! Badakizue frantsesari autoa hausten badiozue arras gaizki hartzen duela. Segur naiz, emaztea edo haurrak hiltzen balizkiote ez lukeela hainbeste penarik...

Eta Aita Saindua ere, beldurtua zen. Limousine zuri batetan eraman zuten Irulegiko santuario berriraino. Jende guti bazterretan, landetan ari ziren laboran xumeetaz aparte. Ah! bai, behiak baziren konboi motel hori nora ote zihoan asmatzen aritzen zirenak. Beraz, Irulegi eta Baigorri eskualdeetan sartzea isilean egin zuen, horrelako gizon umil bati doakion eran.

Etxegarai kardinalak urririk hedatu zituen, gorago aipatu Aita Sainduaren potreta zekarten tea-shirt delakoak, eta Irulegin bildu hiru miluin fidelak horrela jantziak ziren, beren gazte denborako idoloaren errezibitzeko. Karol Botila superstar bat zen: jendeak oihuka errabian hasi ziren, haren mitra urretsua begiztatu zuteneko. Nes-

kak negarrez ari ziren, Manex Pagolak asmatu hitzak abestean:

«Aita saindu ospetsu
zure fedea ketsu
hartsu
gartsu
kartsu
la la la lo lo li li
aita saindu brililі
altxa zure pitili
fede lore eta lili»

Hitz hunkigarriak ziren, Manex Pagolak idatzi hauek. Aita Sainduari begiak busti zitzaizkion, eta segidan Etxegaraiek Varsoviako getoetan bildu mokanes brodatua eskaini zion, malkoen lehortzeko. Eman dezagun ere, ez idazleak, rima beharragatik, eta ez neskatxa kantariek ez zutela bere erran nahi osoan ulertzen «altxa zure pitili» bertso errealista. Pierre Lafitte, Luhuson sortu euskaltzale zaharrari galdeginen diogu esplikazioren bat...

Aita Sainduaren arpegia gogortu zen. Gizon honek komedia nola egin bazekien: alegia otoitzean galdua, ezkerrean zegoen Ortzaizeko sero-

ra pulposa bati so zegoen, antsiz eta desiraz hila. Ortzaizeko serora hark irri gozoak igortzen zizkion, gurintsu, irintsu, etabartsu... Karol Botilak, bere burua eskutartean hartu zuen, jendeen bekatu mortalentzat barkamendu Jainkoari eskatzeaz asea eta nardatua balitz bezala. Egiatan hauxe zitzaion burutik pasatzen: «Oi serora hau ere ez duket oheratzen ahalko! Ai ni ez banintz Aita Saindu, bizia errazago nuke!».

Populutik, lasterka estrada saindura hurbildu zen, Jon Kapagorri, prestatua zuen hitzaldiaren irakurtzen hasteko. Eztul ttiki bat eman zuen, zintzurra karrakatuz. Hitz lainoz eta neurtuz ari zen:

«Ongi etorri aita saindu maitea,

»Arras zoriontsu gara, zure errezebitzeaz, hemen. Mintzaldi laburra egingo dut, zu bezain ontsa mintzatzen ez bait dakit, edo ez dudalakoan sekulan ikasi. Mundu osoa, telebisten leihotik, guri begira dagoela senditzen dugu; egia errateko domaia da lur honetan bakarra bait zara zure gradoko gizonetan. Espero dut, eta horretan bukatzen dut, zure etsenplu harrigarria ikusirik, mila bat Aita Saindu aterako direla! Milesker

hain laster gure gomitari ihardespen baiezkoa emateagatik... Gora Karol Botila! Gora Elorri!».

Isildu zelarik, Jon Kapagorri, berriz eztulka hasi zen, huts handi bat egin zuela ohartu zelakoan: bai, mila Aita Sainduren sortzea desiratu zion Karol Batilari, retorikaren liluran (euskal apezen retorika noski!) ongi bazekielarik Aita Saindutasunaren urgulua bakuntasunean zetzala! Tanpis, pentsatu zuen, erranak erran...

Xapito baten pean kantatu zuten meza ederra. Entzun behar ziren gizonen eta nesken botzak, sekulan nahastikatzen ez ziren botz kristalezkoak. Denek komuniatu zuten, zeinek mihia, zeinek eskua luzatuz. «Itoiz» taldeak osatu zuen zelebrazione hunkigarri horren musikal alderdia. Abesti famatu batean, Irulegiko Maria Birjina goraipatzen zuten: «Maria gora, Maria behera (bis)» ehunetan bederen ahozkatuz... Ritmoan, jendeak burua altxatzen zuen, eta gero beheratzen. Obserbatzaile arrotz batentzat, mezak, tranpolino partida bat iduri zuen. Xarmagarria... Meza bururatzean, fededunek Angelusa hartu zutenean, Aita Sainduak, Etxegarairen laguntzarekin, kalitzan gelditzen ziren ostiak kondatu zi-

tuen. Biga bazeuden, eta oraindik, purruskatuak... Kontent ziren gure bi gizon ospetsuak; Irulegin bederen ez zirela ostiak, nola beste tokietan, jale eskasez mutzutzen.

Segidan, herrikoen eskaintzen aldia izan zen: jendeak banaka lerroan jarrarazi zituen Etxegarai kardinalak, Baionako apezpikuaren baimenarekin. Nehor ez zen falta: irratiak, kazetak eta telebistetako zuzendariak. Horien erdian zegoen Leon Zitrone, bai eta ere urrunetik ikus zitekeen Michel Drucker. Ze populua! Bunetak eta txapelen ttittika matxistak! Hots, euskaldunak gehien bat. Laboran konkortu batek aitzur bat eskaini zion erranez: «horrela Txernienkoren bizkarra aise jorratzen ahalko duzu!»; neskatxa loditxo batek, bere kulota espermaz zikindua; langile batek, fabrikan galdu formolean kontserbatu eskua; ostaler gotor batek, patxaran botila bat... Gauza arras bitxiak ikus zitezkeen, ordu bat baino gehiago iraun zuen eskaintza honetan...

Ordea, ez naiteke isil, gertatu zena azaldu gabe. Eskaintza emaileen lerroan, zutik, irri polit bat ezpainetan eta jadanik emaztetua osoki, jendeak, Irulegikoak behintzat, Elorri ezagutu zuen.

Batzuek «ooooh» luzea utzi zuten eskapatzera. Bai, Elorri alias Gloria Patxaran, hor zegoen Aita Sainduak, hila zela uste zuen garaian. Berak trikotatu txaleko gorri bat eskaini zion, umilki erranez Luzaidekoen partez zela. Aita Sainduak eskerrak bihurtu zizkion. Baina, honek ez zekien zuzen nor zen...

Karol Botila zutitu zen, eta partxemino horitu bat hartu zuen eskutan. Irakurtzen hasi zen:

«Batikanoko dotoreek, Irulegin pasatu gertakizun asko kontuan edukiz, erabaki dute *á l'unanimité* Elorri zena saindutzea. Hona, euskaldunek saindu bat gehiago daukazue, otoiz egin nahi baldin baduzue: Loiolako Iñaki, Xabierreko Franzoi, Ibarreko Michel Garicoits, eta orain Irulegiko Elorri... Jendalde suertetsu! Zorionak deneri, agur eta beste bat arte!».

Jendeak txalotu zuen Aita Sainduaren hitzaldi motza; pentsatuz Elorri bizi bazen berdin, dena matxinazio bat baizik izan ez zela, eta hala ere simulatzen segitu behar zuela. Ordea ez ziren matxinazioaren neurri osoaz konturatzen, beharrik...

Festa aintzina joan zen. Gauerditan, oraino, musikaren hotsak entzun zitezkeen Irulegiko karriketan. Arrotz pelerinoak, bixtan dena, beren hoteletan lotan zeuden, eta beraz Baigorri eskualdeko biztanleek festa egiten zuten. Jon Kapagorri, Kepa Oihenarte eta Iñaki Karrakoil ostatuan galduak ziren, Luzaidetik etorri Elorrirekin. Herritarrak poztu ziren, neska hori gustokoa zutelakoan, hondarrean. Elorri negarrez ari zen, zorion iturrien erdian. Gauez-gau bere hilobiaren bisitatzera abiatu zen. Phua! Zer usaina! Kasik trenpuxartu zen gure Luzaideko putaetxeetako makarela saindutu berria. Ustelkeriaz estalia zen familiako kutxa. Marmolean idatzi Bazterre izena haragi zirringatsuen artean gordea zen... Iñaki Karrakoilek esplikatu zion: «Beha, Elorri, ez kexa! Gauza zikin horiek guziak mirakulutuak diren pelerinoek uzten dituzte, herriko sainduari opari gisa. Beste ainitzek, ere uzten dute «Credit Agricole»an ireki dugun kexan, zure izenean, ematen diguten diru guzia sartzen dugu: Zure eta gure aferak ongi doaz segur! Kosta urdineko kasinoen berri daukagu astero, eta Italiakoak

hango baten eskutan ditugu...» Elorri asea zen, eta logale zegoen...

Ostatu batetan sartzen zihoazelarik, gizon bat zuriz bezti lasterka hoteletik ihes egiten ikusi zuten. Hurbiletik beltzez jantzi batek segitzen zuen: Aita Saindua eta Etxegarai kardinala ziren. Ebasleak bezala eskapatzen zirenak. Gaixoak! Elorrik irri egin zuen. Irri...

-IX-

Aita Saindua, Karol Botila, joan zen, gauez, kasik nehori deusik erran gabe. Biharamonean, herriko langileek bazuten lan, dena garbitzen. Paper meta handi bat altxatu zuten Irulegiko plazaren erdian, eta su eman. Gero, hondar zikinak ere, erre zituzten: frita zimeldu gurintsuak, oihal puska pixaz urrinduak, zapata pare bat zilatua, goitidurak etab. Eguerditan ez zuten oraino bukatua beren lan neke eta dorpea.

Zikin horien erdian, langile batek, Aita Sainduak bere ihesketan galdu kalota xuria atzeman zuen. Buru gainean pausatu zuen, Erromako gizon sainduaz amini bat trufatzeko. Bere kideek irri egin zuten orduan. Hortik pasatu zen Kepa Oihenarte; usaiako kanuto lodia ezpainetan zeukala, eta jende horiek irriz ikustearekin piskat kezkatu ondoan, hurbildu zen:

– Non ebatsi duzue kalota hori? –galdegin zuen.

– Ba, lurrean aurkitu dugu. Peiori ongi doakio, eta erabaki dugu hark zuela bere etxeko sukaldeko tximineiean trofeo gisa begiratuko.

– Ideia ona naski! Bena ez duzuia uste horren lekua basilikako aldarean dela?

– Errazu Kepa, munduko aldare guziek balio bera dute, ez!

– Baiki, izazue nahi duzuena hondarrean, ez dugu nehori deusik erranen! Agur eta segi hola hola...

Langileak ari ziren elkarren artean eleka: baina Aita Sainduak ez zukeen bilorik kasko gainean, Aita Saindua kalotarik gabe behar bada, gurea bezalako ziloa dauka ipurdian, eta horrelako gauza lizun frango.

Daniel Landart iragan zen Irulegitik bere antzerki berriaren presentatzeko. Herriko jaun merak ongi etorri beroa egin zion, segur Landart horrek, hainbeste lan obraturik euskararen eta euskal kultura monolitikoaren alde, bait zuen meheximendu. Bere inpermeablea soinean zeukan, bai eta bere euritakoa, nahiz egunak eguzkia zuen errege. Patxaran baso bat edan orduko

solasean hasi zen, matelak gorri eta betezpalak apal:

«Ba, kuntent niz zien artian izaitiaz (manerak bazituen mutikoak, eta herriko jendeak bezala mintzatzen saiatzen zen. Ez gu iduri, eskuara batuyan), gaur ene taldiak teatro (antzerki) berri bat presentatuko dautzie. «Nola jin, hala joan» deitzen duzue. Frantses gobernamendiak, Bonnin misionest gaztiaren bidez, eman daut sosa lan horren bururaino eramaiteko. Xantza ukan dut, segur. Bena, jakin zazie ziek e zeit nahi bauzie muntatu aski dela suprefeturara juatia dirua ukaiteko. Aise da, biziki aise: gizonezkoak juaten dira oilasko pare bat besapian, eta neskatxak gona laburrekin, bere oparotasunak agerian izaiteko gisan. Nolaz Bonnin hori ez den burdinezkoa, eni iruditzen zaut neskatilentzat aiseago dela zeiten ardiestia. Bena, undarrian, bakoitxak ikus beza. Beaz, gaur artio».

Ostalerrak nahiko zion beste edari bat eskaini, euskal kultura hain ederki eta zintzoki sustengatzen zuten suprefeturako gizon hartaz mintzatzen segi zezan. Ordea, Landart presatua zen. Bere Ortzaizeko adiskide min samina enkulatu

gogo zuen, antzerkian arizan baino lehen. Eta arrazoia zuen. «Hiru saiak» hotelean sartu ziren biak...

Herriko jendeek bazekiten Elorri ez zela hila, ehorzketa mezan, izan arren ez zutela lurpean sartu zizareek ari zezatentzat. Ez, Elorri bizi zen oraindik, eta erabaki zuten hau sekretu atxikiko zutela; bestela ixtorio loriagarriaren azkena izaten ahal zen. Ostatuetan, irriz hantzen ziren jendeak, apezpikuaren eta bere armada beltzen arpegiak asmatuz noizbait zerbait egia ikasten balute... Apezpikuarena, Frantziako presidentearena, euskal idazleena (Haritxelar, Xarriton, Manex Pagola, Lanatua eta Pierre Bidart...), Aita Sainduarena. Denak asmatzen zituzten. Eta irrigileetan «gure» Elorri ez zen gibeletik heldu...

Alegia, berria hedatu zuten madame la duchesse De Lanusse jin zela Irulegira bizitzera. Berrehun zerbitzari ba omen zituen Lanusse herrian zegoelarik, eta berrehunak lizentziatu zituen Irulegira etortzeko pobre arrunt bat bezala. Baina düxeza hori Elorri baizik ez zen. Segur kutxak diruz beteak zituela, arras pobreki bizi zela ogi beltza eta baratxuriak janez errepax bakoi-

tzean. Frugalitate edo zuhurtzia ekologista horrek laguntzen zukeen hogei urtetan, hamalauetan zeukan azal mertxika kolorearen begiratzen. Elorri, aspalditik emaztetua zen, eta gaitzeko desmasiak zegizkien gizon gaixoen artean... Luzien Etxezaharreta arras konkistatua, xarmatua zen hura ere. Goiz batez, Milafrankatik etorri zen bere mikroa beste delakoa bezain gogorki altxaturik:

– Agur madame la duchesse de Lanusse, erraiten ahal diguzu nondik heldu zaren?

– Bai, orain arte mundu zabalean ibilia naiz; zenbait denboraz Luzaiden egon nintzen, hotel berezi baten kudeatzaile serios bezala. Elorri saindutua zenez geroz, ez nuen gehiago deusik arriskatzen, eta Irulegiko neska garbi eta zintzo horren federa konbertitzea erabaki nuen. Luzaiden nintzelarik, egia erran, ez nintekeen serora deitzen diren haietatik, zeren nire meneko nituen muga kasik ordu guziz, egunero, guarderi irekirik utz arazten zituzten neskatxa lirainak...

– Zuk, omen, madame la duxesse, Elorri ongi ezagutu zenuen?

– Ez duzu pentsatzen ahal zein hurbiletik ezagutzen nuen, Elorri zena. Ni hura banintz bezala ezagutzen nuen. Bon, euskaraz eta kitto!

– Beharbada zerbait erants zenezake, jendeen gogoetan Elorriren oroitzapena indartzeko?

– Erran dezakedan gauza bakarra hau da: Elorri hila izanagatik, beti Jesus famatua iduri noski, gure artean bizirik dagoela. Guk obra ditzakegunak oro ikusten dituela. Horregatik eskaintza aberatsak eta otoitz kartsuak zuzendu behar dizkiogula. Ez dut beste deusik erraiteko...

– Baina... baina esplikatzen ahal diguzu erranaldi sibilino hori?

– Gaixo Luzien, Luzaideko Zibilino aspalditik joana da mundu hilkor honetatik... Gizon ona zen, segur, ele goxoak ezpainetan eta begiak hain bipil neska bat biluzirik zekusanean...

– Ba, madame la duchesse... ez dugu elkarrizketa hau horrela segitzen ahal. Horretan uzten dut egungo... ASKI!

Zutik egotearen bortxaz, Luzienek bizkarrean min zuen. Egia erran, Elorrik zioen eran, bazen une pila bat Euskal Herriaren geroa bere sorbalda azkarretan zekarrela. Horrelako mina ez zen

batere estonagarri, hondarrean. Baina guk ez dukegu euskal kulturaren langile suhar horretaz irri egiterik...

Bazen sei urte Jon Kapagorri Euskal Herri barneko diputatu zela. Nolaz Frantzian, sei une irauten duen legebiltzargintzak, orain zitekeen zerbait aldamenen obratzeko mementoa. Kanpaina hasi zen apirilaren 5ean, eta hilabete batez ez zen besterik entzunen: «ni hauta nazazue, ni hoberena bait naiz». Jendeek, bilkuretan, kandidatu bakoitzari hitzematen zioten haientzat bozkatuko zutela, baina etxerata beren emazteei «nire kontzientziaren arabera bozkatuko dut!» zioten. Euskal Herrian ez zen kontzientzia bezalako beste bultzagairik.

Legebiltzarkide berrien hauteskundeetarako zein ziren aurkeztuak presentatuko ditut segidan. Eskuindar bat bazen, Emil Trapouille izenekoa: hau duela zenbait une etorri zen gure herrira erretretaren hartzera, eta bere bizi osoa Pariseko bulegoetan iragana zuen. Zuen ideiarik handiena hau zen: «Zuen herria baketsua, gar-

bia, argia maite dut. Irulegiko Ama Birjinaren santuario horrek bazter guziak zikintzen ditu, eta euskaraz mintzo diren «arrotz» langile gehiegi ekar arazten. Nik proposatzen dut, hemen bakea zaintzeagatik, euskaldun guziak Frantziaren iparraldera igorri behar ditugula. Halatan, xoko hauek trankilak izanen dira bizia, hiri zikinetan, higatu dutenak zahartasunean, bederen, lasai hil daitezen...» Arrazonamendu soil horiek jende frango biltzen zituzten. Baina euskaldunek bazekien, aspalditik, hitzek zer erran nahi zuten... Bazen ere sozialista leun bat, beti apezak bezala mintzo zena euskaraz ari zenean: Franzoi Maitia... Honek ez zuen lehen aldia bere burua presentatzen zuela. Bistan dena, Itosperen denboran, eta geroxeago Jon Kapagorri komunista errearekin, ez zuen suerte handirik ukan. Gizon ongi ikasi eskolatu horren programa ere arras sinplea zen: «Ni naiz zuen salbatzailea. Euskara euh, polliki emaiten dut, euh ekonomi mailan ontsa gara, euh alderdi sozialistan leku ederrean naiz, euh Giterran presidentearen gelari euh, orduan, euh, obra zintzo bat egizue nire alde, euh, bozkatuz». Entzuteko xarmagarria baldin bazen,

delako «euh» dudatsu sozialista horiek gehiegi erakusten zuten, ez zekitela zuzen nora joan nahi zuen bere ekintzetan... Hondarrean, beste bat bazen ekologista: Hener Gisoler deitzen zena. Honen programa aldiz biziki pisua zen lehen xixtan ulertzeko. Gai zientifikoetan sartzen zen, logaritmoak Irulegiko santuarioa pizti bat zela frogatzeko. Hener Gisoler hau, izenak erakusten duenez, ez zen euskalduna. Holandatik etorri zen duela zenbait urte, han kultur ministeritzan funtzionario egonik, hemen lurrarekin eta laborantzarekin berriz harreman sakonetan jartzeko. Honek, ere, hauteskunde hauetan ez zukeen esperantza handirik, bere ideiak agertzeaz aparte... agertzeaz aparte...

Eta, ez dugu presentatuko Jon Kapagorri, gure aspaldiko laguna, herriarentzat hainbeste ongi egin zuena, eta jende guziek beren semea bezala maite zutena. Honek aski zuen hitz bat erratea denak kantuz, huxtuz eta dantzan zuti arazteko. Jon Kapagorri komunista, gizon karismatikoa zen. Gainera, azken urtean, madame la Duchesse de Lanusse esposatu zuen; eztei ederrak Euskal Herrian... Agian, irakurle, konpreni-

tzen duzue: duxesa hori Elorri Bazterre, Ama Birjina ikusi zuen hura zela, bakarrik. Alde orotarik goresmenak bildu zituzten, eta gehienek desiratzen zioten ahal bezain laster seme bat ukaitea. Madame la Duchesse alias Elorri errealista zen, zerbait alderditakoa izan beharrean, eta zioen haur baten egiteak bederatzi hilabete gutxienez hartzen zituela, jendeek beraz epe hori errespetatu beharko dutela. Entzuleak irriz ari ziren, Elorri deabrusa horren umore ona miretsiz...

Hauteskunde eguna iritsi zen. Maiatzeko igande eguzkitsu loriosoa. Goizean goizetik ireki ziren auzapeztegiak, eta bozkatzea errezago izan zedin herriko apezek, apezpikuaren manuz, ez zuten meza kantaturik eman. Ez zen sekula horrelako *taux de partizipation* delakorik gertatu; jan orduan, jadanik, biztanleen erdiek bozkatua zuten. Arratsaldeko seiretan, bulegoak hertsi zirenean % 100-ek beren botza emana zuten hautatzeko ziren hiru kandidaturen bati. Frantzian barna zifrak askoz apalagoak ziren.

Zortzietako berrietan, ondorioak agertu ziren. Aldi honetan ere, euskaldunek erakutsi nahi izan zuten ez zirela egiazko frantsesak; fun-

tsean, lehenago Itosperentzat bozkatzen zutenean, desberdintasun hori frogatzen zuketen. Ez dugu gure herrietako euskalduna kulpadun sendi araziko. Ez atzo, ez orain: non genuke bada horretarako deretxoa? Frantzian, sozialistek eta extrema eskuinekoek irabazi zuten, bakoitzak diputatuen erdia erdietsiz. Euskal Herrian, erran gabe doa, Jon Kapagorrik hartu zuen diputatu kadira, bigarren aldikoz... Baina hona xeheki emanak ondorioak:

inscrits: 156.238

votants: 156.142

partizipation: % 100

Emil Trapouille: %2,5

Franzoi Maitia: %3,9

Hener Gisoler: %0,12

Jon Kapagorri: %93,48

Ikus dezakezuen bezala, zifrak fidagarriak dira gehienetan, Jon Kapagorrik lehen itzulian berean irabazi zuen, airez-aire. Jon Kapagorrik ez zuen programa berezirik, eta berdin, horrek zuen jendeari konfiantza ematen. Funtsean, zer zuen oraindik frogatzeko... deus.

Ezer...

-X-

Festak, berriz hasi ziren, Euskal Herri barnean. Fandango, arin-arin, kaskarrot martxak, kantaldi oparoak, pastoralak: sekulan baino gehiago. Santa Graziko gazteek, adibidez, eman zuten Junes Kasenave-Harrigilek idatzi obra bat «Irulegiko Elorri» titulupean. Izugarrizko arrakasta ukan zuen pastoral horrek... Jendea, Irulegin eta inguruetan, zein bere lanari lotu zen; eriak eta pelerinoak gero eta ugariago etortzen bait ziren.

«Maiatz» batasunekoek afari bat egin zuten Baionako apezpikutegian; ba, beste kaskoin hura joanik, Aita Sainduak Kepa Oihenarte hautatu zuen kargu horren batetzeko. Ehungarren zenbakiaren kaleratzea ospatzen zuten. 198 Lean, pattar horretan iraulen edo udalen hasi zirenean ez zuketen pentsatzen beren saila hain urrun eraman zezaketenik. Baina ez da sekulan zerbait obratu behar geroari pentsatuz: mementoan mementokoa konplitzea aski da. Hau etsenplu bat da...

Jon Kapagorrik bizia zigarreta bat bezala erretzen zuen, ordu haietan. Eta biziki gustatzen zitzaion, autoan, laster gidatzea. Bazuen Peugeot 304 coupé décapotable xuri-beltz bat. Gertatu behar zena gertatu zen: Altzumarta eta Martxutako bidean, platana bat kuskatu zuela. Beribila puskatua zen, eta barnekoak ez men gehiago formarik. Berna fite hedatu zen, herrietako irratien bitartez, Jon Kapagorrik istripu bat ukan zuela, etabar. Segidan, Donapaleutik, gendarmeak, ponpierrak eta ànbulantziak etorri ziren, hots eta zarata askorekin.

Herrialde orotan gizonak oihuka ari ziren, eta emazteak negarrez. Istripu hori injustizia bat zela zioten gehienek. Batzuek zuhurtzia uzten zuten mintzatzera:

Ba, gure zorionak ez zezakeen iraun. Bizi honetan, zorion minutu bakar batentzat, mila zorigaitz ordu dauzkagu. Errezago da zorigaitza segitzea, hor gure erdian tente eta mutu bait dago, zoriona iheskorra delarik. Zer egingo dugu orain? Beste diputatu bat hautatu? Ez, ez dugu hau baino txarrago baten hautatzearen arriskurik hartuko. Bon, hau egin dezagun: ez dugu

gehiago diputaturik igorriko Pariseko parlamentura; gaur goitik gure gain jarriko gara!»

Zuhur horiek arrakasta eta entzule frango bazuten inguruetan. Hitz bat bakarrik, bazebilen denen ezpainetan «gure gaintasuna». Halere, jendeek, sekretuki desiratzen zuten, autoko istripua ukanagatik, ez zela Jon Kapagorri hola eta hola hilen...

Anbulantziak Baionako klinika berrira eraman zuen Jon Kapagorri gizon ederraren gorputz dislokatua. Hango medikuek, zioten ez zutela Baionan deusik egiten ahal, eta Bordelera bidaltzea erabaki zuten. Gure diputatua zitzi puska bat baizik ez zen orduan. Bordelen, Pelegrin klinikaren teilatuan pausatu zen, Jon Kapagorriren gorputza ekartzen zuen elikopteroa. Lasterka jin ziren infirmertsak, erizainak, medikuak eta beste armada zuria formatzen duten espezialistak.

Operazione blokera karreatu zuten Jon Kapagorri. Mediku atrebitu, aberats, espantoros horiek nahi zutena egiten zuketen gure diputatuaren gorputzarekin. Batek, zangoko hezurra hautsi zion, aiseago sar zedin operazio taula hertsian. Beharrik jende gutik daki zer gertatzen

den zuzen klinika horietan; askotan etxe ospetsuenek harakindegi antzak badituzte... Eta eter usain segitzaile hori... Triste zen hondarrean!

Jon Kapagorri operatu behar zuen xirurgianoaren izena arras itsusia zen: Gilles Bizturri. Bihotza alegera hasi zen zitzi pusken josten, hertze zilatuen tapatzen bizikletetarako erabiltzen diren rustinekin; estomaka gibelarekin koropilatu zion; bihotza bere kaiolatik kendu zion, gero bi burdin zatiren bitartez, bere lekuan erdi-makur jartzeko... Gilles Bizturri ez zen egiazko medikua, arotza bait zen, klinika honetara jin baino lehen. Xarkuteria hori, aise konpreni-dezakegu, jakinik Bizturri jauna Bordeleko extrema eskuineko taldearen buruzagia zela... A! bai eh...

Aste oso batez, berri kontraditorioak hedatu ziren Euskal Herrian. Batzuek Jon Kapagorri hil zorian zegoela, besteek esperantza gelditzen zela oraino, Bordeleko medikuek zerbait on konpli zezaten. Elorrik berak ez zekien gauza handirik. Bordeleko medikuek ez zioten erraten zuzen zer egiten zuten Jon Kapagorriren gorputzarekin. Gainera debekatu zioten ikustera etortzea. Pena

bat da emazte batek bere senarraren berririk ez edukitzea...

Trapu bat bezala, Bordeleko medikuek Baionara igorri zuten Jon Kapagorri. Hiru aste iraun zuen Bordeleko bidaiak, eta gure diputatua ez zen iratzartu. Pastinarri bat iduri, perfuzioekin, bizirik atxikitzen zuten. Orduan Elorri joan zen lasterka, Irulegitik, Baionara bere senarraren osagarri ahularen berri jakitera. Ikusi zuen, ba, baina nolako egoeran: buruak ez zuen gehiago buru formarik, ezpainik eta ahorik ez, besoak plegatuak zituen, zangoak ere. Elorri negarrez hasi zen: «ene maitia, orroit hadi Irulegi inguruko sasietan nola jostatzen ginen elkarrekin...». Hitz horiek erran orduko Jon Kapagorrik begiak ireki zituen... Eta, Elorriri konpreni arazi zion Irulegiko Ama Birjinarengana ihes egin nahi zuela, hark sendatzen ez bazuen ere, bederen lasaiki hiltzen ahalko zela. Han, Irulegin...

Elorrik eskatu zuen Baionako klinikaren buruzagiari bere senarra, Irulegiraino eramateko baimena. Errez erdietsi zuen, Baionan ez bait zekiten zer egin horrelako gorputz erdi hil batetaz. Anbulantzia klinikatik emeki jalgi zen, eta segur,

azken aldikoz Jon Kapagorrik, bere emaztearen eskua tinkatzen zuela, Euskal Herriko bazter pollitak begiztatu zituen. Uztaritze, Kanbo,

Itsasu, Bidarrai, Uharte-Garazi eta Irulegi... Ahal izan balu negarrez ariko zen...

Irulegin, jende askok, beren diputatua idurikatzen zuten. Otoitzean ari ziren, nahiz bazekiten orain, dena maxinazio bat izan zela. Berdin zitzaien, lana herrian euskaraz erdietsi zutelakoz Jon Kapagorri diputatu komunista horren bidez. Gainera, sinestearen bortxaz, mirakuluak eta besteak, egiazki gertatzen hasiak ziren. Urtero, Irulegin, Lurdesen baino fededun gehiago biltzen zen... Anbulantzia, ostatuaren aintzinean paratu zen, eta bi langilek Jon Kapagorriren anda jautsi zuten. Jendeak, hauteskunde arratseko txalopen berdina egin zion Kapagorriri. Diputatuaren ezpain formarik gabeko haietan, irri bat marrazkitu zen.

Basilikaren atarian pausatu zuten Jonen anda. Handik azken mintzaldi labur baten emateko, bere indarrak bildu zituen, diputatu gazteak:

«Milesker, urte luze hauetan zehar eman didazuen konfiantzaz. Gezurra asmaturik, herriaren laguntzeko beharbada deabrua sobera tentaturik, hark bere infernuan hartuko nau. Niri berdin zait, infernuko ere, batzuk behar bait dira. Barkatuko didazue agian, ez banaiz lehenago nola euskara ederrean eta literario batetan mintzo... Segi ezazue beti bide beretik: hobe da lurrean paradisua bizitzea, ahal bezainbat, gero berdin hil eta infernuan ere zuen heineko paradisua erdiesten ahalko bait duzue. Asko egoten dira zeruari begira, han dela Jainkoaren eskuinean jarririk, egiazko paradisua...

Zuek ez esperantza faltsurik eman nehori, esperantza egunero, zail bada zail, bizitzen ahal bait daiteke. Zorionak denei, zuen kolaborazione zintzoagatik. Zorionak, eta milesker!».

Jadanik, hainbeste zauri ezin sendatu zituen mutikoak horrelako hitz hunkigarriak erratea, harrigarria zen. Entzuleek txalo hornituak eman zituzten. Bere endeari azken behako bat bota zion, eta zeruan hodei beltzak biltzen ari zirela, Jon Kapagorrik hatsa jabeari itzuli zion. Hiru ximixta ikus zitezkeen zeru-ortza zilatzen, ihauste-

ri burrunbatsu batek mundua ikaratzen zuela... Doidoietarik ez bait zen egiazki Ama Birjina agertu!

Basilikako orginak egun osoan, soinutan ari ziren, Gaxuxa Poalla atrebituaren eri trebeen medioz. Mozarten Requiem delakoa entzun zitekeen, eta Maite Idirin etorri zen kantu klasiko triste batzuen abestera. Jon Kapagorri kutxan sartu zuten. Lau egunez, pestilentzia askoren erdian, jende frango jin zen otoitz labur batzuren marmarikatzera, lore zimelduak pausatzera, diputatuaren argazkiaren musukatzera eta besarkatzera. Guziek bazuten, segur, zer egin..:

Jon Kapagorriren beribil kraskatua (Peugeot 304 coupé décapotable) basilikaren aldarean ezarri zuten, errelikia gisa pelerinoek adoratzekotan. Irulegiko jaun merak mundu osotik telegrama sinpatikoak errezebitu zituen: Giterranek, bere ministro bat igorri zuen lau-bost egunentzat, ehorzketa handiak molda zitzan diru pila batekin. Jacksonek, Ipar Ameriketako lehendakari beltzak, Txikagoko artzapezpiku indiotarra de-

legatu zuen, eta Moskuko Txernienkok, Tsarkoie Sieloko pope ortodoxoa.

Ehorzketen ordua jin zenean, Irulegiko landa eta zelai guziak jendez estaliak ziren; bizidun uhin beltz horrek naturaren larrazkeneko hegoak busti orlegitasuna gordetzen zuen. Kepa Oihenartek erran zuen Jon Kapagorriren oroimenezko azken meza kantatua; bertsolariak hor ziren, kantariak, bai eta ere Artze anaiak txalapartaz, arimaren gorputzetik joate soilaren laguntzeko. Gaxuxa Poallak orgina jotzen zuen, aire samurrak emanez. Jendeak negarrak berentzako atxikitzen saiatzen ziren, horrek seriotasun hunkigarri bat zemaion zelebrazioneari...

Gero, litanien ondotik, jendeak bi lerrotan jarri ziren. Iñaki Karrakoilek, Frantxix Kaskarrok, Kepa Oihenartek eta Manex Lanatuak, gaztaintzean moztu kutxa pisua, sorbaldetan–hartu zuten, hilerrira eramateko. Hilerria, elizatik bi kilometrotan zegoen, eta bi kilometro horietan, bide bazterrean, fededunak beltzez beste mukurru zeuden. «Zerua! zerua! zerua saritzat!» abesten zuten...

Herriko langileek jadanik leku huts batetan lurrean bi metro barnako zilo bat egin zuten. Karreatzaileek pausatu zuten, eta apezak azken benedikazionean kantatu zuen, berreterrek intsentsua hedatzen zutela kanpoaren usainontzeko. Bat-batean, Elorri alargun gaztea, doluminez, lerroetarik atera zen negarrez oihuka. Iduri zuen otsoak berriz gure artera heldu zirela: Elorri desesperatuaren orro erraikorrak!

Elorri gaixoa, kutxaren gainean etzan zen. Kepa Oihenartek erran zion ez zela gehiago deus egitekorik, gizon bat hila zenean betikotzat hila zela, eta nahiz Jon Kapagorri izan, mirakulurik ez zela gertatzen ahal. Hori Jesusen pribilegio bakarra zela. Elorri, Jesus delako haren madarikatzen hasi zen. Urrunegitik ez zitekeen ikus, baina bere mantalet brodatu beltzetik laban zorrotz bat kendu zuen. Zorbatza, eguzki arraio espantorosekin klixkan ari zen. Zorbatzari so egin zion, eta bere arropa lodiak altxatuz, tripan barna sartu. Eskuinaldetik ezkerraldera sabela ireki zuen. Minik senditzen ez zuela bazirudien. Halatan, Elorrirentzat gorputzeko mina ez zen bihotzeko mina bezain hilkorra...

Elorriren gorputzean, sabelaren hainean, marra gorri ketsu bat ireki zen, beraz. Hertzeak odoletan erori ziren lurrera, gibelak lurra hunkitzean zartatze minbera bat ukan zuen, halaber estomakarekin. Odol gorri, gazte, lerden hori lurreko errautsarekin nahasi, merlatu zen. Hainbeste hemoglobina! Gehiegi, kutxa gainditua gertatu zen...

Hats erlastu bat bota zuen Elorrik. Jon Kapagorriren kutxaren gainean zabal-zabalik, eta tripako elementu guziak kanpoan ketan oraindik, luzatu, hedatu zen. Istono hunkigarri hau horretan bukatu zen, nik ere besteak nola, memento latzean begiak hertsi bait nituen...

1984ko uztailean
Oragarren egina